

Astekaria

BAREN

elgoi

Olentzeroren oparia Elgoibarri



ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkarte

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldeg

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteberu

Erredakzio Kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Eburne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Publizitatearen diseinua
Luis Mari Zubiaurre

Kolaboratzaileak
Joxin Arregi, Miriam
Aldazabal, Jose Alberto
Ansuategi, Jon Eugi, Hasier
Etxeberria, Maite Iriondo,
KOKOE, Jasone Osoro,
Diana Perez de Albeniz,
Lorea Perez de Albeniz,
Eduardo Sanz, Aitor
Zabaleta.

Banaketa arduraduna
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

elgoi**BARREN**ek ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta
iritzien erantzunkizunik.

Elgoibartarrok elgoibartarrontzat egindako herri astekaria.



ERREDAKZIOA:

Itziar Agirregomezkorta, 36 urte. (*Udal Euskaltegiko Irakaslea.*)
Alberto Agirreazaldeg, 39 urte. (*UZEIko Zuzendaria.*)
Ainhoa Lodoso, 23 urte. (*Kazetaritzan lizentziatua.*)
Maite Rementeria, 23 urte. (*Kazetaritzan lizentziatua.*)
Amaia Leiaristi, 25 urte. (*Marketing Teknikaria.*)



elgoiBARREN** BAT Elgoibarko etxe bakoitzean !**

Zuek ere elgoi**BARREN** herri astekaria, dohain, astero buzoian jaso nahi baduzue, ez dudarik izan: **bete harpidedun txartela eta elgoi**BARREN**era bidali.** Idazteko alpertuta bazabiltza berriz, telefonoz egiteko aukera ere ematen dizugu. Zuk ezezik, Elgoibartik kanpo bizi den lagun, edota ahaide-
ren batek ere jaso nahiko balu, bete fitxa eta ahalegin guztiak egingo ditugu
hauetara ere bidaltzeko.

HARPIDEDUN TXARTELA

IZENA:
ABIZENAK:
HELBIDEA:
HERRIA:
TEL:

elgoi**BARREN** astekaria, Ubitarte 4 behe. (20.870) Elgoibar Tel: 741626

elgoiBARREN behar genuelako

Elgoibartarrok, agur t'erdi:

Lehenik eta behin, urte sasoi honen aurrean gaudelarik, derrigorrezkoa deritzot zuoi, Elgoibartar herria osatzen duzuen guzti guztioi, jai zorionsuak opatzeari, berdin bakantza giroan murgilduz zabiltzatenoi, nahiz, batek daki noren erruz, Elgoibartik urruti aurkitzen zaretanoi,

ZORIONAK!!!

Zail izango da bat baino gehiagorentzat gure proiektu honetan sinestea, jakin ez badaki berorren sorkuntzaren nondik norakoa. Hala bada, gizartean komunikabideek lortua duten garaiera begibistakoa zaigu, agerikoa den bezalaxe, gure herri astekari honekin, ez goazkiola inori ezer zanpatzera, baita zera ere!

Bestalde, nor ez da sarriaskotan herrian gertaturiko hainbat ekintzaz behar baino beranduago ohartu? Nor ez, herri honetan garrantzizko ezer gutxi suertatzen dela eta, era honetako salaketaz mintzo?

Lehengoari eutsiz, ez gatoz aipatu komunikabideen lana ebaluatzen, ez baita hori gure

egitekoa. Bai ordea, horiengan elgoibartar xeheak aurkituko ez duen informazio iturria betetzera. Hauxe eta ez besterik da elgoi BARREN herri astekariaren nahia.


Proiektua gutxi batzuren eskutatik abiatu bada ere, gu denon baitan dago "herri astekaria" izenak dioen bezala "gure" egite hori, horretarako eguneroko bizitzan harentzat merezi adinako tartea eginez eta askotan honen zail egiten zaiGUN komunikazioaren bitartekari bilakatuz.

Ez noakizue produktuaren bertuteak gorai-patzera; nere iritzi pertsonala baino ez litzateke izango, jakinik endemas ez dagoela haur jaioberri bat aztertzerik, haren nortasunaren emaitzak jasotzeke.

Hemen duzue, beraz, gaurdanik iragarri eta Urtarrilaren 15ean lehen zenbakiarekin hasita, elgoibartarrok elgoiBARREN herri astekariaren erronka.

elgoiBARREN

EL ALMACEN DE ELGOIBAR Altzariak



Koltxoiaren hilabetea:

Koltxoi bat erosteagatik egurrezko laminadun somierra oparituko dugu.

Koltxoiak 5 urtetako garantia dute.

Urasandi 2. Tel: 74 29 41

MAITATUZ MINTZATU

U ELGOIBAR
UDAL **EUSKALTEGIA**
NAFARROA ENPARANTZA, 2.
E Tel: 74 27 31

EUSKARA



KENSINGTON

Ingelesaz gain, **ORAIN**, Frantsesa ere IRAKASTEN DUGU.

Urtarriletik aurrera **TALDE BERRIAK**. MAILA GUZTIAK

JAI ZORIONTSUAK eta URTE BERRI ON !!!

Pedro Muguruza etorbidea 8
Tel, Fax: 74 02 36.
ELGOIBAR



Miembros de la Asociación
de Enseñanza de Idiomas de Gipuzkoa

Atal honetan lau kolaboratzaile finko izango ditugu urtean zehar. Astero txandakatuz, lauen iritzi artikulua irakurtzeko aukera izango dugu.



Diana Perez de Albeniz

Ekilibristaren sarea

A lde batetik eta bestetik egun kulturaren aspaldiko sus-traiak ia galdu ditugula entzuten dugun garai honetan, betidaniko ohiturak oraindik ere mantentzen direla erakutsi zidan gertaera behatu ahal izan nuen orain bi egun.

Plaza Txikian hiru urte inguruko neskatoa bankuko bizkar gainean ekilibrista saiakeratan dabil, baina, "Nerea!! Ikusiko zu jausten bazera!!" Danba! "Amaaaa!", buruan oraingoan.

Eskua zabaldu eta burura, lehen kolpean hartutakoa hurrengo baterako ikasita edukitzeko nahikoa izan ez ote den kezka uxatzeko edo. Besoa indar kontrolaezin batek hartzen du bere menpe, eta askatu beharra dago. Horrelakoetan, beren energia bortitiz hori

menderatu ezin duenak, goiko hortzak beheko ezpainaren gainean pausatu eta pixkat estutuz, bestearen burura gabe, zertxobait beherago ageri den irteera borobil potolo batera zuzen dezake, inorentzako kalte handirik gabe.

Esan beharrik ez dago, baina halere esango dut, irtenbide hobea deritzodala ekilibristaren sare gisa jokatzeari, baina noski, begibistakoa da azaldutako gertaerako amaren antzera, egiteko asko baino gehiago izaten dugula horretan denbora inbertitzeko, eta errazago zaigula besoa askatzea. Baina nik uste dut plaza txikiko harriaren gogorra etorriko zaiola burura bankura igotzen den hurrengoan, ez ala?



Hasier Etxeberria

Etena

B at baino gehiago hasita dago gure artean eten bat dagoela aditzera ematen. Itxura denez, duela urte batzuetatik hona, euskal idazle gazterik ez omen da sortzen, eta horretxan kezu dira zenbait euskal argitaldari eta batez ere, SUSA argitaletxea. Izan ere, SUSAREN sorrerako helburu bera idazle berriak plazartzatzen laguntzea izan bait zen.

Antza denez, oraingo gazte euskaldunek nahiago izaten dute beraien trebezia artistikoa negoziotan, kazaritza edo bertsoaritzan lantzea literaturan baino. Penagarria, arraioa.

Literatur sena daukan gazteak, adi behar du egon bere barneko hots txikiaren ere entzun ahal izateko. Ondoren, lan dezente eginenez, formaz borobildu eta azkenean, ahal baldin bada behintzat, argitaratu eta irakurleak hunkitu. Gauza guti dago ganorazko literatura egitea baino gauza zailagorik. Ezer guti esker kaskarragorik daukanik. Baina aldi berean, ez dago ia ezer bera bezain garrantzikorik.

Jhon Berger-ek esango lukkeen bezala, "idazte esperientzia balioz betetzeko borroka da". Edo, "gertatzen den guztiak bere izena baleuka ez litzateke literaturarik behar".

Gauzen alde magikoa, eguneroko hitzetan adierazi ezin dena, idatzi arte esistitzen ez dena... horixe da literatura. Sorkuntza ariekitarik garrantzitsuenetakoa da bera.

Baina etena omen dago. Eta ez da harriztekoa. Bizimodua topatzea hain zail bihurtu den honetan, lujoa eman dezake idazle sartzeak. Baina aldrebes da. Literatura da funtsezkoa eta gainontzekoa bigarren. Idazle izateko gaitasuna duen gaztea, merkatarik bihurtzea egon litekeen galerarik haundienetakoa da gizartearentzat. Literaturarik gabe, bizitzak ez du batere balio. Horixe da gaur sortzen den aldizkari honetxi eskatu nahi diodan xedea, izan dadila Elgoibar-ko gazte idazle-nahien babes, animatzaile eta topagune. Ez da gutxi.

Aurkezpen ale honetan Elgoibarko alderdi politiko guztiei tokia egin nahi izan diegu. Alderdi politikoei ezezik prentsan dabiltzan elgoibartarrei ere beraien gogoetak plazaratzeko aukera eskaini diegu. Eskerrikasko denoi gure eskariari erantzuteagatik.



Euskara hutsean sortzen den edozein astekari txalogarria da guretzat. Hainbat gehiago Elgoibarko Izarra

Kultur Elkartetik baldin badator eta gure hizkuntza zuzpertzeko asmoaz sortzen bada.

EAJ-PNVk, euskaldunon artean eta euskara ikasten saiatzen diren guztien artean, merezi duen harrera eduki dezan, ez du ahaleginik baztertuko.

Astekari honi bizitza luzea opa diogu eta bertan agertuko diren gaiak eta edukinak interesgarriak izan daitezten nahi dugu. Badakigu horrela izango dela eta horregatik bere sortzailak lan egitera animatzen ditugu berotasun handiarekin. Horrelako inizatibak dira gure herrian, kaleetan eta etxeetan euskara finkatzeko behar ditugunak.

Lan honek merezi duela uste dugu eta euskaraz irakurtzeko grina hizkuntza hau maitatzen dugunon artean sortu behar dugu.

Elgoibarko EAJ-PNVk lerro hauen bitartez, Jai Zoriontsuak eta 1993 oparoagoa opa dizue. Agur

Jose Ignacio Elkoro Iribe
Alkatea, EAJ-PNV

Lehenik eta behin nire agurrik beroena eskaini nahi diot jaio berri den elgoi**BARREN** astekariari. Ez du bere aurrean lan makala, herriko izkin eta zoko bazterretan gertatzen denaren berri elgoibartarroi emateko asmoa baldin badu. Baina jaiotza guztiak ospakizunetarako aproposak direnez, etorkizun oparoa eta itxaropentsua opa diezaiozun jaio berri den astekariari.

Mundu teknologiko honetan munduko edozein puntutan jazotzen denaren berri minutu gutxitan izateko aukera ezin hobekak ditugu. Somaliako gosetca, Balkanetako gerrate krudela, guzti hau eta beste hainbat berri, irakurle, ikusle zein entzule mutua bezala jasotzen dugu. Informazioaren garaia da oraingo hau dudarik gabe, baina ez ordea, komunikazioarena.

Ez dugu goiko solairuan bizi den bizilaguna ezagutzen, ez dakigu non egiten duen lan eta berarekin agur hotz bat baino ez dugu trukatzeko eskaileran elkar topatzen dugunean. Bizitza garatuaren emaitza da honako hau, munduan zehar gertatzen dena ongi baino hobekiago dakigu, ez ordea, gure inguru hurbilean bizi direnen berri.

Herri aldizkari batek beraz, nire iritziz hutsune garrantzitsu hori bete behar du. Herri komunitate bat osatzen dugunon sentimendua indar dezake, gure herriko gorabeheraz interesa sor diezaguke eta azken batean, gure herri zein auzoa hobetzen ahalegintzera anima gaitzake. Herriko iharduere-tan berri izatean, bertan parte hartzera anima gaitzake eta.

Horrez gain, euskara hutsean kale-ratzen denez, euskaldunok euskaraz bizitzeko beste tresna berri bat izango dugu eta jakina, aipatutakoa berri ezin hobea dugu.



Idoia Arozena
"Egin"eko kazetaria



JUDO-KARATEA-TAEKWONDOA
GIMNASIA-GIHARKETA

MANU MORA

Kirol Hezkuntzan lizentziatua

Santa Ana ,46 beheca. Tel.740793
20.870 ELGOIBAR



ZORIONAK

M A P F R E
ASEGURO ETXEA

San Frantzisko Kalea, 34
Telf: 74 05 82 - 74 14 04

Mundua aurrera joan den neurrian, informazioa gero eta toki gehiagotara iristen da. Aurrerapen teknologikoek erraztu dituzte komunikabideen lanak eta, orain, munduko edonongo berriak jasotzen ditugu.

elgoiBARREN bezalako aldizkari bat argitaratzeak garrantzi handia du, zeren gero eta zailagoa egiten baitzaigu gure inguruko berriak jasotzea. Elgoibarko berri txikiak, baliteke, garrantzi gutxikoak izatea egunkari, edota telebistan azaltzeko, baina eduki ditzakete halako eragina herri honetako biztanleen artean. Hor dago kakoa.

elgoiBARRENEK hemengo berriak jaso beharko ditu; herri honetako biztanleei interesatzen zaizkienak. Euskaraz argitaratzea derrigorrezkoa da Elgoibar bezalako herri batean. Euskara eta erdara elkarrekin bizi dira, baina kalean zehar buelta bat ematea nahiko da erdara nagusi dela ikusteko.

Elgoibarko Izarraren bultzada hau pauso bat baino ez da izango, baina beste herrietako esperientzia ikusi eta gero (Bergara, Eibar, Arrasate...), esan behar da honelako aldizkariak eragina izan dutela euskararen erabiltzearen.

Zorte on elgoiBARREN elgoibartarren artean ikaragarriko harrera izan dezazuela opa dizuet.



Aitor Zabala

"El Diario Vasco"-ko korrespontsala

Agur eta bizi luzea elgoiBARRENi

Aurtengo Olentzerok ekar zezakeen oparirik ederretarikoena ekarri digu.



Ametsa zirudiena errealitate bihurtu zaigu. Posible izango dugu Elgoibarren ere herriko albisteak euskeraz irakurtzea.

Baina ziur gaude ez dela mirakulua izan. Lan asko izango da tartean: bilera, elkarrizketa, kontakto...

Elgoibarko Izarraren indartzea poliki baina ari da fruituak ematen.

Herri ekimena izan da proiektu horren bultzatzailea eta, hein handi batean, berari esker daukagu esku tartean Elgoibarren eta elgoibartarrentzat egindako aldizkari hau.

Herri ekimena behar beharrezkoa izan da gure herrian sorturiko beste hainbeste proiektutan: Egunkaria, Ikastolak, AEK, Argia, Udako Euskal Unibertsitatea... Instituzioek, hala ere, kontrako jarrerak hartzen dituzte sarri askotan ekimen horien aurrean.

Beraien bidera sartu nahi dituzte, nahiz eta bide hori estuegia izan euskararen beharrezkoetarako. Ikastolen geroa oso kezagarria azaltzen zaigu. Helduak cuskalduntzen fruitu oparoak eman dituen A.E.K., erabat bazterten du gure Udaletxeko "gehiengoak".

Pausu handiak beharko ditugu eman euskara dagoen zulotik atera nahi badugu, diskriminazioak, bereizkeriak alde batera lagata.

elgoiBARREN astekari berri honek iparra markatzen digu. Gu, gure aldetik, eta pozez beterik gauden une honetan, Izarraren argiari jarraitzeko prest gaude.

Pedro Mendizabal
Herri Batasunako kidea.

URZELAI

ELEKTRIZITATEA-ARGIGINTZA

Santa Ana 12-14. Tel: 74 13 76



CITRÖEN

Santa Clara Automoción, S.L
Zerbitzu Ofiziala.

Santa Klara 40 ELGOIBAR
Telf.: 74 00 93 - 74 19 50



elgoiBARREN
antsiaturiko
proiektu bat
izatetik egia sutsu

bat izatera pasa da. Gure herriak duen barne indarrak bultzaturik, gure txokotik eta gure txokorako sortu da. Gure lehen erreferentzi puntua, denontzat berdina dena, gure herria da, eta berau hobeto maita eta defenda dezagun, gehiago ezagutu behar dugu. Martxan dugu gure herriaren eguneroko bizitzaren taupadak zehatzago ezagutzen lagunduko digun tresna. Elgoibarren pilpilean dauden gaiak puntualki ezagutzen lagunduko digu, egunkariak eskeintzen dizkiguten lau lerroak baino gehiago izango bait da. Desafioa garrantzitsua da. elgoiBARREN elgoibartar guztiontzat ezinbesteko elkartze puntu bat izatera deiturik dagoela ziur gaude. Benetan beharrezkoa zaigu astekari hau. EAtik, lehenengo ale hau erabili nahiko genuke gure laguntza osoa duela adierazteko. Zuen alboan izango gaituzue, helburua Elgoibar eta elgoibartarrok zerbitzea den neurrian. Elgoibartar guztiok: zorte on eta gabon zoriontsuak!

Jesus Mari Garcia
Eusko Alkartasunako lehendakaria

Gaur egun ez da batere erraza komunikabide berri baten jaiotza ospatzeko aukera izatea. Are gehiago elgoiBARREN bezalako aldizkari bat bada, zein Elgoibarko eguneroko berriak bildu eta argitaratzeko asmoarekin sortu den, hau gutxi balitz, hizkuntza euskara izanda.

Garai hauetan, teknologia berriek gure etxeak munduarekin uztartzeko aukera ematen digute. Munduko edozein tokitan gertatzen diren berriak jasotzea ez da batere arraroa. Teknologia hauek elgoiBARREN bezalako aldizkariak ateratzeko aukera ematen digute, herri bakoitzak irratik eta telebistan protagonista izateko aukerarekin. Hau dena, herri telebistaren proiektua agindu zuten alderdi politikoei gogoraraziko nieke. Halaber, interesgarria litzateke herri mailako komunikabide sare apropos bat lortu duen Arrasate bezalako herri batengana gure begirada zuzentzea. Informazio lokalak, nahiz eta irakurlegoak gustokoa izan, garrantzia galdu du komunikabide handietan, hauek albiste orokorrei ematen dieten tratamenduagatik; elgoiBARREnek herrian gertatu denari buruzko informazioa emango digu, herriko bizimoduari dagozkien gaiei buruzko informazio ezberdinak eskeiniko dizkigu

Herritarrek bertako instituzioen erabakien alde on eta txarrak nozitzen dituzte. Kasu honetan, Udaletxea da Elgoibarren dauden talde ezberdinen administratzaile. Arlo honetan, herri komunikabideen zeregina herritarrei interesatzen zaizkien gaien berri ematea da, eta elgoiBARREnek badu, dudarik gabe, betebeharrak interesgarri bat arlo honetan.



Constan Nuñez
"El Correo Español"eko korrespontsala
(Erredakzioan itzulia)



Done Frantzisko, 27
☎ - Fax 74 32 06
20870-ELGOIBAR (Gipuzkoa)



A.E.K. EUSKALTEGIA

**10 URTE EUSKARA
IRAKASTEN**

Plaza Txikia, 3 Elgoibar
Tlfnoa: 74.13.32

Ia enteratzen garen !

ElgoiBARREN besapean dugula sartuko gara 1993an. Ez da urtea hasteko modu txarra, ez portzierto. Zazpi telebista kate, irrati piloia, hamaika egunkari eta aldizkari ditugu aukeran, baina enteratzen al gara Elgoibarren bertan gertatzen denaz?

Aukera paregabea iruditzen zait eskuartean daukaguna gure informazioa geure hizkuntzan geureganatzeko, eta ez hori bakarrik, Elgoibarko giroa piska bat pizteko ere balio dezakeela uste dut.

Giroaren asuntua bueltaka darabilten azken aldi honetan. Ezin daiteke esan, kanpotik begiratuta, behintzat, Elgoibar polita denik. Hori badakigu. «Giro aldetik, ba beno, badira "ambiente" gehiago duten herriak. Euskalduna den? Teoria eta numeroek gutxi gorabehera hala dela erakusten badute ere, gero eguneroko bizitzan, kalean, ez da gehiegi igartzen.

Ez dakit nire irudipena izango den, baina Elgoibartar izatearen "sentimendua" edo dena delakoa "Krisian" dagoela esango nuke. Orain dela aste batzuk lagun nafar bat etorri zitzaigun bisitan. Larunbata zen eta ohizko erronda hasi aurretik kafetxo bat hartzera bildu ginen. Gure lagunak ez zuenez herria ezagutzen han hasi ginen gu, elgoibartar finak, azalpenak ematen: ba hemen ez dago ezer, ez da gauza interesgarririk gertatzen, herria zatarra da, eta ikusiko duzu orain Maala aldera goazenean, dena Eibarko ume nazkagarritz josita. Gauean? uf, azken aldian jende gehiago dabil kalean, baina ez dago girorik.

"Giroa" hitza berriro. Euskal giroa, festa giroa, herri giroa... Guzti honetaz pentsatzen ari nintzela Arrasateko lagun batek kontatutakoa etorri zitzaidan burura. Beren herri aldizkariak halako giro berezia sortu zuela esan zidan, jendearen inplikazioa lortu zuela, alegia.

Apustua zaila da, baina polita. Denboraz, pazientziatz eta denon laguntzaz euskal giroa eta herri giroa "berotu" dezan opa diot elgoiBARRENi. Aurrera ba!



Montse Arregi
"Euskaldunon Egunkaria"ko kazetaria.



Gure herrian sortzear dagoen aldizkariari, agur:

Luzaroan amesturiko proiektuaren azalera inork ahantz ez dezakeen gertakizuna da, areago gure herriaren kontzientzia eta sentikortasuna garatzeko balio duen ororen alde borrokatzen dugunontzat.

Komunikabide berria, herrikoa kasu, guztiz ekintza garrantzitsua da, konpromezu sozial eta erronka kultural baten onarpena eskuratzea baitu helburu.

Gure gizarteak, teknologia berritze ikaragarria jasaten du, aldaketa hau arlo guztietan barreiatuz, ekonomian, ekologian, demografian, arlo sozialean... Guzti hau litzateke hain zuzen, komunikabideetan isladatu beharko genukeena, era bizian, maldutasun eta zintzotasunez herritar orori, argia eta egungoa izango den mezua heleraziz.

Elgoibarko alderdi sozialistaren baitatik, Elgoibarko Izarra osatzen duten erredakzio lagunak zoriondu nahi ditugu, herrian ahots berri bat urratzeagatik, zeinak, hain derrigorrezkoa den biztanlogoaren pluraltasun espresio bidea erraztuko duen.

Jose Manuel Herrero
PSOEko kidea
(Erredakzioan itzulia)



MORKAIKO

ZORIONAK eta URTE

BERRI ON !!

Errosario 17 p.k. 121. Tel: 74 02 97

PETUNIA

MODAK

Errosario 12, tel:74 16 48





Bertsolaritzan ere, norberaren esaera egitea, errazagoa izango dela pentsatzen dut, inork ipinitako

gaien aurrean erantzutea baino.

Horrelako zerbait gertatzen zait niri ere, idazlanetan. Inork ipinitako gai ei erantzutea zaila egiten zaidala, alegia. Dena den, beti ezin gaitezke errezean ibil, eta uste dut, hori bera bururatu zaiela Elgoibarko Izarrako zuzendaritzako kideei: geldokeriarekin apurtzea eta EUSKARA, balio duen hizkuntza bat bihurtzeko suposatzen duen bide neketsuan sartzea.

Ziur nago, eta hainbat harrutuko dira ondorengo irakurtzean, elgoiBARREN astekaria argitaratzea eta bere garaian Ikastola sortzea, Elgoibarko Izarraren azertu handienak izan direla, zeren eta kasu bietan ERDARARI AURREA HARTU DIO. Hau da, hain zuzen ere, EUSKARA baliagarri eta interesgarri bihurtzeko era bakarra. Gai guztietan erderari aurrea hartzea, dudarik gabe gure esku dago, ez Madrilen ez beste inoren menpe ere.

Maila guztietan egiten ditugun lanak, programak e.a., erderaz egiten direnak baino hobekak izatean bakarrik erakarriko dugu jendearen interesa. Orduan bihurtuko da EUSKARA beharrezko tresna eta nire iritziz, elgoiBARREN astekaria argitaratzeko erabakia bide honetan dago. Zorionak! Orain, ordea, zailena geratzen zaigu: JENDEARENGAN INTERESA SORTZEA.

Juanjo Baztarrika
Euskal Ezkerreko kidea

Urte berriaren haseran egia bihurtuko da ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEAREN helburua. Erakunde honek sortutako euskara mintegiak garbi adierazten du, gure izatea bezain aintzinakoa den gure hizkuntza, gure herrian bizirik dagoela. Asmo honek txalorik beroenak merezi ditu, hori aurrera eramateko arazo handiak izango dituenaren susmoa baitut.

Elgoibarren nahiz eta euskarak bizirik iraun, garrantzizkoak diren gai, erreportaia eta albisteeak bere irakurle goaren jarraipen bat izan dezaten denon laguntza izan beharko du astekari honek. Irakurtzen ohituta ez dauden irakurleak, horiek dira eguneroko ahalegina egin behar izango dutenak.

Aukera hau aprobetxatzeko garaia da. Eskaintza berri hau onartu behar dugu eta horretara ohitu behar gara. Pausurik garrantzitsuena eta ahaleginik haundienetarikoa eman da. Argitarapen honen kalitate onak gure arretarik handiena merezi du. Gure esku dago mintegi honen etorkizuna, berau bultzatzen dutenen ahalegina garbi ikusten baita lehenengo ale honetan.

Eta orain, Gabon atarian, ematen zaidan aukera aprobetxatuz, Eguberri jai zoritsuak eta urte berri onuratsua opa nahi dizuet.

Zorte ona ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteari.



Maritere Elkoro-Iribe
"Deia"ko korrespontsala.



JAUREGI
I N P R E N T A

Done Frantzisko 20 - Tel: 74 13 29. P.K. 39. 20870 ELGOIBAR. GIPUZKOA

KATALOGOAK-LIBURUXKAK

INPRIMAKIAK

TIPOGRAFIA ETA OFFSET

LIBURUDENDA-PAPERDENDA

IRIONDO TABERNA

JAI ZORIONTSUAK !

Pedro Muguruza 2.

Elgoibar.

Atal honetarako zuen laguntza eskatu beharren gaude. Etxeko kajoak "astindu" eta erretratu zaharrak aurkitzen saiatu behar duzue. Hala balitz, ekarri erredakziora eta gustoz argitaratuko ditugu, nork eman digun aipatu eta komentario txiki bat eginaz.



LABORDETA

Enrike Astigarragak lagatako erretratu, 1958 urtekoa dugu. Despedidaren baten aitzakian, TXARRIDUNA jattetxearen atarian kurioso azaldu zitzaigun kuadrila xeble hau.

Zeintzuk diren? (goitik behera eta ezkerretik eskuinera) Agustin Iriondo, Jose Luis Ansola "Gatito", Manolo Arriaga "Akabarro", Maria Iza-

girre, Jose Arriola "Pitxirri", Ines Urain "Txarriduna", Fernando Uriarte "Olimpic", Julian Ansola "Azkubere", Valentin Ibarluzea, Jose Bedayo, Donato Barandiaran, Josetxo Arakistain, Agustin Etxeberria "Motza", J.J. Astigarraga "Porru", Florentino Muguruza "Agarre Txiki", Patxi Lizarralde "Agarre".

AGUR, ETA BIDE LUZEA EGIN

elgoiBARRENI



ELGOIBARKO HERRI BATASUNA



AZKUE

Gazteenek jakin ere, ez dute jakingo Elgoibarren palazio bat izan genuenik. Sinesgogorren zat hona hemen **Aziarraganeko Palazioa** bezala ezaguna zen etxearen argazkia. Gaur eguneko Urbitarten dagoen parke-beltzean zegoen kokatua eta irudian oso garbi ikusten ez bada ere, dorre bat ere bazeukan atzeko aldean.

Bertan bizi izan ziren printze-printzesei buruz ezer gutxi dakigun arren, badira palazio honen inguruan hainbat kontu. Itxura denez, ezkerrean

dauden bañera tipoko balkoiak, 1936aren ondoren ipini zituzten. Ordurarte, kristalez egindako begiratoi edo miradore bat omen zegoen, baina gerra garaian bonba batek apurtu zuen hura.

Exotiko zenik ez du inork zalantzan jarriko eta begira bestela sarreran ezker eskubi dauden bi palmerak. Barrutik ere, bazeukan zer ikusirik, bistan egon ez arren, esaterako, etxearen hiru solairuak lotzen zituen egurrezko karakol eskailera luze eta borobil-borobil bat.




GIDARIK GABEKO AUTO ETA FURGONETAK ALOKATZEN DITUGU



BILKETA-BANAKETA ZERBITZUA:
EIBAR, ERMUA, BERGARA,
ARRASATE, ZARAUTZ, DEBA,
ONDARROA ETA AZKOITIA



PREZIO BEREZIAK KONTSULTA ITZAZU

ERRESERBAK EGITEKO:
TFNOAK: (943) 74.36.50- 54 FAX: (943) 74.38.93

GARATE

JANTZI-DENDA

San Bartolome 13. Tel: 74 11 29.






"Traidor y Cobarde" zuen izena argazkiko elgoibartar hauek Maalako Ospitalean 1947. urtean antzestu zuten obrak. Goitik hasita eta ezkerretik eskuinera:
Juli Serrano, Juan Jose Beloki, Jose Juaristi, Manolo Rementería, Julian Iriondo "Sanson", Juanito Canales, Miguel Sanchez, Benito Saez, Luis Santolaya, Manolo Anton, Jose Zubiaurre "Ballegoiti", Pako Juaristi, Roke Arregi, Juan Iriondo "Naparra", Ramon Ezenarro eta erdian azaltzen den mutikoa, Rodolfo Cuesta.

elgoiBARREN



PUBLIZITATEA

74 23 84

HISPANIA  SEGUROS ZURICH  INTERNACIONAL

Mota guztietako aseguruak eskaintzen dizkizuegu

Jai Zoriontzuk eta Urte Berri On bezero guztiei.

Bulegoa: Artekale z/g. behea

Etxeko zuzenbidea: San Frantzisko 16 - 2ena. ELGOIBAR

ZUBIAURRE



**autoedizioa
eta
diseinu grafikoa**

Santa Klara 40-3. 74 44 44.

ASEGURU AHOLKULARIA



o r a m b a r r i

Mota guztietako aseguruak dauzkagu.

Kasu bakoitzeko aholku eta irtenbide

egokiena emango dizugu.

San Bartolome 15 behea. Tel: 74 30 37.

ESKUTITZAK

Eskutitz guztiek igorlearen izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NANA izan beharko dute. Argitaratzerakoan, igorleak hala eskatzen badu, inzialak azaltzeko aukera izango da.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz eta errespetu faltaz idatzitako gutunentzat.

Zer oparitu aurten?

Kaixo lagunok:

Eskerrak eman nahi nizkizueke lehenengoz, hemen, zuen aldizkari honetan gure iritzi eta usteak libreki adierazteko ematen diguzuen aukeragatik.

Urreratzen ari zaizkigun Gabonetako jai hauetan jende askok buruan darabilen ardura latzenetariko bat umeei zein erregalia egitea izaten da. Eta ez da batere harritzekoa, denetarik edukitzen bait dute gehienek. Haurrek, normalean, erregei bidaltzen dizkieten eskutitz luze eta zabal horietan, merkatuan (telebistan, dendetan...) azaldutako azken nobedade ikusgarri eta garestienak eska-

tzen dituzte eta kasu askotan gurasoengan buruhausteak sortu ohi dira, umeei eskatzen duten guztia eskaini ezin izaten dietelako.

Gaurko gizarteak gauza asko erostera bultzatzen gaitu eta gehiegikeria horrek askotan ilusioa galdu arazten du, gauza bakoitzak duen balioari garrantzirik ematen ez zaiolako. Garbi eduki behar genukeena zera da: gure seme-alabak ez direla zoriontsuagoak izango emango dizkiegun gauzen kopuruaren arabera, daukagunaren balioa erakutsiz baizik.

Erregaliak egitea beti da polita, noski, baina neurri batean...

Agurtzane Garzia

GUASS diskotekaren irekieraz

Bazen ordua! Azkenean gure herrian diskotekak zabaldu ditu bere ateak. Bere helburua hamabi-hamasei urte arteko gazteak kalean dagoen giro alkoholdu horretatik ateratzea da. Helburu hau beteko al du?

Izan dira honelako saiakera batzu eta gogorra datorkit Ikastolako Frontoian duela denbora gutxi eratutako "disco light" a. Batek daki zer dela eta ez zuen behar bezalako arrakastarik izan, agian diskoteka batek duen grazia hori ez zuelako edo: argiak, musika-oihartzun ego-kia, aretoaren hoztasuna etab.

Orain horrenbeste

buruhauste sortu duen irekiera horrek, izan ditu 16 urtetik gorako artean hainbat ezadostasun, bada, 13-16koentzat gaueko 9etan itxi eta besteontzat 12etan irekitzea izan da hasera batean guk salatu dugun lehen gauza.

Igande arrunt batean, ezinezkoa zaigu ordu horietan diskotekartzeta, izan ere, ze ordutan etxeratu beharko genuke?

Baina badirudi gauzak aldatu direla eta nahikoa izan da denbora labur bat akats horretaz ohartzeko.

Diskoteka nahi dugu, baina ordu aproposalan. Denontzat bai, baina bakoitzari bere ordutegia emanaz.

Leire Herrero Iglesias

PVC ETA
ALUMINIO
ARROZTEGIA



LODOSO

TAILERRA: Ermuaran bide 16

Erakusketa: Artetxe 18. Tel: 74 34 90 - 74 09 73.



KEMEN
BELARDENDA

MEDIKU NATURISTA-AKUPULTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA REFLEXO TERAPIA.

SAN BARTOLOME 26. TEL: 74 40 31

Eta... izarra Belenera heldu zen

Tradizio luzea du, baina ez horregatik zaharra. Eraberritzea dute helburu Elgoibarko San Bartolome elizan urtero Euskal Herriko jaiotzarik ikusgarrienetarikoa muntatzen eta apaintzen diharduten sei lagunek. Hilabete t'erdi behar izaten dute guztia prestatzeko eta nola ez, pazientzia izugarria.



SARASUA

↳ Jaiotza ikusteko azken eguna urtarrilaren 17a da.

Duela hamabi urte ikusi ahal izan genuen lehen figura edo irudi biziduna: putzu batetik ura ateratzen zuen astoa zen. Egun, lau figura txiki eta zortzi handi daude, guztiek dute mugimendua. Irudi fijoak ere badaude, baina, xedea edo helburua bat da: mugimendudun figura berriak egitea. Belengo herria zeharkatzen duen erreka ere perfektoagoa eta ikus-

garriagoa da urterik urte, eta estalaktita eta guzti duen kobazuloa ere bada-go.

Dekoraziorako erabiltzen dituzten elementu guztiak, harriak, goroldioa, arbolak, ... naturalak dira eta Errioxaraino joaten dira ipuru arbolaren bila.

Pepi

Figura edo irudi asko daude, baina guztien arte-rik bat dute maitatuena.

Diru falta dutenean, beraien poltsikotatik jartzen dute.

Eurek Pepi deitzen diote eta arropa garbitzen duen hamar bat zentimetrotako emakumea da. Dituen jantziak ikusita, edonork esango luke Belengo herritar bat baino, Sevillako turista gidari bat dela. Azpian duen motoreak sortzen dituen mugimendu bizkorrei esker, Arielek baino garbiago uzten ditu Pepik putzuan garbitu dituen arropak. Aurten, beste arropa garbitzaile

PUBLIZITATEA

 **742384**

ELGOIBARKO UGT-k



JAI ZORIONTSUAK opa dizkizue langile eta herritar guztioi.
Ea 1993 urteak ZORIONA eta LAN GEHIAGO ekartzen dizkigun!

Tel: 74.36.45

handiago eta politagoa egin duten arren, ez dute Pepi baztertu nahi izan eta, beraz, biak jarri dituzte jaiotzean, bata bestearen alboan, ama-alabak bailiran.

Ikuskizun aparta

Jaiotza ikustera hurbiltzen den orok, goizetik gauera, herri baten bizitza ikusi ahal izango du. Egunez, aizkolari, okin, garbitzaile, buztina lantzen duen gizonak, trapua astintzera leihora ateratzen den emakumeak eta beste zenbaitzuk lanean dihardute gelditu gabe.

Gauak iluna dakarrenean, txartel elektronikoko bati esker, lan egiteari uzten diote eta, gaueko langileek hartzen dute erreleboa. Herria lo dagoen bitartean, jaiotzaren ertz batetik izarra irteten da eta saltoka, jaiotzaren luzera guztia zeharkatzen du. Kontutan izan behar da aurtengo honetan iaz baino hiru aldiz bide luzeagoa egiten duela izarrak, izan ere, iaz lau metro egiten zituen eta aurten hamabi.

Beste datu batzu ematearren, esan, aingerua



SARASUA

↳ Ekialdeko erregeen kanpamenduak oasia eta guzti dauka

mugitzeko ehun metro kable behar direla eta beste horrenbeste izarra mugitu ahal izateko.

Mila metro kable

Bitxia edo kuriosoa da, berrogeitamar metro karratutako tramankulu horrek atzetik duen makineria eta kableria guztia zein ondo koordinatua dagoen ikustea. Izarrez apaindutako oihal batek, inoiz huts egin ez dezaketen urezko turbina, txartel elektronikoko eta mila metro luze diren kableak instalatzen ditu.

Jendeak esaten duenaren arabera gidatzen dira hurrengo urtean zer egin erabakitzeko.

Ehundaka haur, gazte eta nagusi, emakume zein gizonetzko, guztiak urratzen dira jakinminez eta sarritan begi zorrotzegiz, jaiotzaren azken berrikuntzak mirestera.

Herritarrez gain, kanpotarrak ere, San Bartolome elizako jaiotza ikustera etortzen dira. Izan ere, Torrelavegako senar-emazte bikote bat urtero horretara bakarrik etortzen omen da. Beharbada urrunegitik etortzea da, baina argi dago, ikuskizunak merezi duela.

ASTIGARRAGA garajea

- Mendiko-bizikleten salmenta eta konponketa.
- Jonsered eta Husqvarna motoserrak.
- Neumatikoak.

San Frantzisko 53.

Tel: 74 01 80.

foto | azkue

San Bartolome 26. Tel 74 08 48.

Elgoibar azoka bihurtzen denean

Tradizioari eutsiz, trikitixa eta pandero soinuarekin esnatuko gara urtearen azken larunbatean. Urtero bezala, sasoi honetan,


Gabon Zahar Feria ospatzen dela eta bailarako baserritarrek eta Euskal Herriko hainbat bazterretakoek ere, barazki, fruitu, lore eta hegaztien lumajearen koloreez apainduko dituzte herriko kaleak.

Giro aparteko jaia izaten da urtearen azken larunbata. Herriko trikitixa eskolako gazteen doinuak eta feriak berak duen bizitasunak ematen diote egunari behar duen alaitasuna.

Gabon Zaharreko Feriaren ardatza bertoko barazki, fruitu, lore, hegazti eta gazta lehiaketak izaki, horren inguruan beste feria mota bat sortzen ari da. Taloa, sagardoa, ardoa eta txorizoa saltzen duten taberna eta txosnen feria, alegia. Horiek gabe ez litzateke berdin, baina ez da ahaztu behar feriarekin helburu edo xedea bestelakoa izan dela hasieratik: baserritarren topagune izatea, hain zuzen.

Nekazal produktu eta

**Gabon Zahar
feriak
gorengo maila
hartu du
azken
urteotan.**



SOARTE

↳ Talo egileak jo eta su eskari guztiak asetu ahal izateko

tresneria ikusgai eta salgai dagoen lekua ere bada Gabon Zahar Feria. Eta kaletarrok, nekazal mundua hurbilagotik ezagutzeko parada izaten dugu.

Guzti hau gutxi balitz,

gainera, Gabon Zahar eta Eguberriko bazkari-afarirako erosketak egin gabe dituenak mota guztietako produktuak izango dituzte aukeran, ehundik gora izango diren saltokietan.

KANDALO
O I H A L A
eta
MERZERIA
Errosario 8. Tel:74 35 95



**ELGOIBARKO PSE-PSOEK
jai zoriontsuak opa dizkizue.
Zorionak !!**

Casa del Pueblo de Elgoibar. Urasandi 4, behe. tel:74 26 43

Gazta Lehiaketa

Gabon Zaharreko Ferriaren atalik garrantzitsuena Ardi Gazta lehiaketarena dela esan ohi da eta noizbait entzun ere egin izan da Ordiziako Gazta Lehiaketaren parekoa dela. Parekoa izan ala ez, urtero gero eta gehiago dira Elgoibarko Gazta-Lehiaketara hurbiltzen diren baserritarrak eta iazko edizioan 38 gazta-egilek hartu zuen parte.

Gazta lehiaketa da dirutan sari handienak banatzen dituen. Aurtengo sariak pasa den urtekoak baino zertxobait handiagoak dira. Irabazleak 50.000 pezeta jasoko ditu, bigarrenak 40.000 eta hirugarrenak 30.000. Horrezaz gain, hiruek urrezko grabatuekin apaindutako portzelanazko plater bana jasoko dute opari gisa.

Epaimahaia, ohi denez, 10 bat kidek osatuko du, eta tartean egongo dira euskal gastronomoak, herriko ordezkariak eta behar bada sukaldari ezagunen bat ere bai.

Hegaztien atala

Aurtengo Feria, he-



AZKUE

↳ Mota guztietako ardi gaztak dastatzeko aukera izango dugu aurtengoan ere.

Jendetza ikaragarria biltzen du Gabon Zahar Feriak

gaztien atala indartzen saiatuko da. Orain arte gazta lehiaketak izan du entzuterik handiena, eta horren adinakoa izan nahi du hegazti lehiaketak. Barietate eta kolorez gainezka ikusiko ditugu abenduaren 26ean Plaza Handiko arkupe eta inguruak.

Besteak beste, oiloen atalean, lepa gorria, lepa soila, marraduna, zilarra eta beltza ikusgai egongo dira, baita oilo-oilar bikote dotoreak ere.

Baserriko ogiak, ez-

tiak, garaiko fruitu aleak eta kalabaza erraldoiek ere beste batzuetan bezala seguruenik oraingoan ere berriro liluratuko gaituzte. **Bertso jaialdia.**

Urtero bezala bertso jaialdiak emango dio agurra egunari. Aurtengoan ere punta puntako bertso-lariak entzuteko aukera izango dute bertsozaleek, polikiroldegian izango den jaialdian. Bertan, Egaña, Lizaso, Sarasua, Solozabal, eta Peñagari-kano izango dira gaueko hamarretatik aurrera.

EROSKI

ZORIONAK



TABERNA

Pilpilean dauden gaiei helduleku ezberdinetatik tiratuko diegu. Egia osorik ez dagoenez, arrazoiak erdibanatuko ditugu.

Olentzero ala Erregeak ?

“Behinola Aralar aldean, Argintxa-baletako muinoan zuzenago, ba omen zebiltzan lasai garai hartako jentilak. Bai eta lasai ibili ere. Egun batez, laino argitsu bat zeto-rrera ekialdetik ikusi ta zer izango ote zen jakin nahiean, berauen arteko zaharrena eraman eta “zer da maisu?” galdetu, eta honek “KIXMI da, KIXMI dator; gure azkena da! Bota nazazue amildegi baten behera”. Bota zuten bai, eta besteek ere hala egin zuten beren buruaz, ez ordea, beraien artean ordezkari bat hautatu baino lehen, gertaera honen berri eman zezan”



Ongi ez bada ulertu, azalpen txiki bat emateko garaia dela uste dut: KIXMI da jentilek Kristo jainkoari eman ohi zioten izena (Jesukristori alegia).

Orain ez dago esan beharrik, berri ematen joan zen jentil haren izena Olentzero denik ere. Euskal mito zahar honen bitartez lortu nahi dudana ez da gauza bi argitu baino:

1-Olentzero dela, nolabait esateko, euskal jainkoteria zaharraren azken pertsonaia.

2-Ez dela askotan esan, izan den legez, Santa Claus edo Papa Noelen euskal plagioa.

Olentzero, inongo data eta testigantza fisikorik gabe, jainkoa jaio behar den

bezperan ageri zaigu gaur egun, bere sasoiaren egotzi zitzaion agindua beteaz, jainko berriaren etorrera aldarrikatuaz. Ez dakit sortalde sortaldeko erregeak baino hobea den, baina ez daukagu besterik, eta nik uste, merezi duela bizirik mantentzeak.

Nik, besterik ezean, argi utzi dut nire preferentzia, hainbeste urte bere lana beteaz, ez du gure mesprezurik merezi. Dena dela, bakoitzak egin dezala berea, eta zoriontsu igaro ditzala jaiak, ez dut uste gu haserretzea gustatuko litzaiokeenik eta (ez behintzat aukera honengatik).

Xabier Gorriti



Betidanik irakatsi digute Errege Magoak Orientetik datoze-la, horregatik kabalgata eguna iristean, urrutiko mutur batetik azaltzen zaigu herrian, haien jatorria adierazi asmoz, Oriente alegia.

Umeak eta nola ez, helduok ere poztasun handiz itxaroten dugu Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeen etorrera beraien zaldi gainean eta garai batean Belengo haurtxoa gurtzera joan zirenean, hauek gidatu zituen izarra.

Herriko ume askok hartzen dute parte jai handi honetan erregeen ibilbidea jarraituz. Denok izan dugu txikitatik etxean baldekada bat ur presatatuta uzteko ilusioa erregeen zaldiek egarria ase dezaten eta beraientzat txorizo, gazta edota zergatik ez, turroi zatiren bat, guk aurreko gau horretan ongi lustratutako zapatetan opariak uzten dituzten bitartean jateko.

Gutako nor ez da hilaren 5ean lehenago

oheratu erregeak datozela eta? Nork ez du lokartuarena egin gure etxean gaueko isiltasunean zarataren bat entzutean, ustez erregeak zirela? Nork ez du bizipoza sentitu erregearen altzoan jazarritz, berak antsiatutako opari horiek idatzirik daudeneko eskutitz hori ematean? Eta nork gaurregun, aita edo ama den aldetik, ez du bere seme-alaben poztasun berbera sentitzen.

Uste dut oso ikuskitzun ederra dela ume, nahiz heldu batek izan dezakeen ilusioa, txikitatik erakutsi diguten hori urtero bizitzea.

Olentzero ere hor dugu. Dena den, ez du sekula beteko niregan erregeek suposatzen dutena.

Idoia Azpilikueta

ETA ZURE USTEZ?

Zure iritzia ere jakin nahi dugu. Kalera irtengo gara herriaren iritzia ezagutu eta plazaratzeko asmoarekin.

Olentzero ala Erregeak ?



AITOR SASIAIN
Ikaslea, 13 urte

Nire etxean biek ekartzen dituzte opariak. Baina nik nahiago dut Olentzeroa, horrela jolasteko asti gehiago baitut.



MARIASUN PEREZ
Etxeko langilea, 27 urte

Erregeak. Gurasoak ez dira euskaldunak eta beharbada horregatik erregeekin ohitu gara. Olentzero gurean baztertuago dugu.



MANU CONDE
Elektrizista, 37 urte

Gurean beti erregeak, lehen ez zegoen Olentzerorik. Baina orain umetxoa izan dugunetik gauzak aldatu egin dira.



IÑAKI ALVAREZ
29 urte

Olentzero, bertokoa da. Nire etxean erregeek ekartzen dituzte opariak, baina Olentzeroren ohitura berpiztearen aldekoa naiz.



IZASKUN BELATEGI
AEKko irakaslea, 46 urte

Olentzero dudarik gabe. Olentzero geurea da. Garai batean Olentzero ospatzen genuen eta pentsatzen dut horri eutsi egin behar zaiola.



MARIBI ZUBIAURRE
Etxekoandrea, 62 urte

Ikaragarri gustatzen zaizkit erregeak. Bezperatik hasten da jai: Plazatik erregeak ateratzean, depositu gainean izarra ikusten da... ez dakit, konpletuagoa dela iruditzen zait, politagoa.

Demaseko
ESKAINTZAK



San Frantzisko 40
ELGOIBAR.

Zure Erosketak
DOHAIN
Izan daitezke

Gabonetako
Loteriaren Sari
Nagusiko azken bi
zenbakiak asmatzen badituzu.
Etor Abendua 21a baino lehen.



euskadiko langile komisiokoak

Aholkularitza juridikoa eta laborala;
Bidaia agentziak; Erantzunkizun
zibileko Aseguruak.

Tel: 74 10 28. Fax: 74 10 28
San Ignazio 1 behea.

Azterketak: bai ala ez ?

Ez dut uste eztabaida horretara bil daitekeenik; ezin daiteke gorabehera hain sinpleki ebatz. Egia da haize berriak datozela hezkuntzan, erabat harrigarriak diruditenak, gainera; baina, nere iritziz, azterketak beti izanen dira.



Kontua da azterketaz zer ulertzen dugun eta nola bideratu behar genituzkeen auzi horren inguruan tartekatzen diren gizarte, guraso, irakasle eta ikasleen arteko interes harremanak.

Hezkuntz sistema orok bere moldera eratzen du jardun pedagogikoa eta guk ezagutu -eta nozitzen- dugunak, soilik, nota eta azterketen gainean jaso du berea. Uste izan du ikaslea kalifikatzeko, ikasgelan ordenua lortzeko eta, azken batez, onenak selekzionatzeko (horixe baino ez baitu egiten oraingo sistemak), ezinbestekoak zirela azterketa tradizionalak. Era horretara, ebaluazioa, nota, azterketa... gauza bat bera balira bezala hartu izan dira. Eta, beti ere, ikaslea, noski, ebaluatua eta izorrratua.

Gaur egun, zorionez, gero eta gutxiago dira uste horrekin mugitzen diren irakasleak.

Azterketak beti izanen direla esan dut gorago. Baina, bistan da, azterketa horiek ez dirateke gehiago era tradizionalan ulertzen diren examin puntual eta aldizkakoak. Horiekin eskola-porrota besterik ez da lortzen.

Azterketa eta ebaluazioa sinonimotzat nahi baditugu, jardun pedagogiko guztia da azterketa: metodoa, irakaslea, ikaslea, bitarteko materialak... Denak dira aztertuak, analisatuak. Ez litzateke honez aurrera pertsonak kalifikatzeko bitartekoa, baizik eta lankidetzan, ikerketan, kuriositatean, lan-taldean... oinarritua, prozesu, ibilbide, diagnosiaren esanahia hartzen duen ikas/irakas praktika bizi, eguneroko eta pertsonala.

Andres Alberdi
Elgoibarko Batxiler
Instititutuko irakaslea.



Ikasle bezala argi dago zein izango den azterketaz dudan iritzia. Ez dut uste azterketak, ikasleen lana ebaluatzeko dugun metodorik egokiena direnik. Aitortu beharra dago askori gertatu zaigula bai urduri geundelako, bai egun txarra genuelako, azterketa bat behar bezala ez egitea.

Azterketak bai ala azterketak ez dilema honen aurrean dauden bi jarrera kontrajarriak ez dira, zoritxarrez, akordio batera helduko. Etorkizun urren batean behinik behin. Alde batetik, azterketen balioa eta zehaztasunean oinarritzen direnak daude; hauen ustez, ikasleen lana eta jakinduria kontrolatzeko gaur egun dagoen metodo bakanetakoen artean egokiena da. Hala ere, nik zera galdetuko nieke; metodo bakarra izateagatik, onena al da? Guztiz zehatza al da? Nire ustez, ikaslearen gehien-goarekin batera, erantzuna ezetza da.

Aitortu beharra daukat, lerro hauek idazterakoan, ahalik eta objetiboena izaten saiatu naizela. Askotan, iritzi edo opinioak azaltzerakoan, eztabaida honetan dauden bi jarrerak kontutan hartu ditut, nire helburua ez baita kexatzearena bakarrik.

Gaur egungo gazteoi, gehiegi kexatzen garela

esaten digute askotan. Hau konpontzeko asmoz, honako irtenbide hau proposatzen dut azterketen ordeztu: ez al litzateke juxtuagoa eta zuzenagoa astero, esate baterako, irakasleak ikasleen lanak eta jarrera kontrolatuko balitu eta hauen oinarrituz notak ezarri?

Azterketen ordeztu metodo ugari izan daitezke posible. Hala ere, ez dut azterketak kenduko direnik uste. Batez ere, ez bait zaie agintariei komeni gizartean oso errotua dagoen heziketa metodo hau aldatzea. Alde batetik, eztabaida ugari sortuko liratekeelako zein metodo den onena erabakitzen eta, bestetik, oso garestia izango litzatekeelako.

Dena den, noiz edo noiz heziketa sistema aldatuko dela espero dut, etorkizunean ikasleek guk jasaten dugun presioa eta urduritasuna jasan ez dezaten.

Aitor Landa
Batxiler Instititutuko ikaslea.

INTERIORES

SUKALDEAK ETA BAINU
ALTZARIAK
ATE TOLESGARRIAK
BARRUKO ARMAIRUAK
DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea. 20870 ELG

BETI ARGi S.L.

Erregalo artikulua
Instalazio orokorak
Sukaldeko tresneria.

ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.

PUB

elgoibar

Azterketak: bai ala ez?



ELIZABETH ROMERO
U.B.I.ko ikaslea, 18 urte

Sistema dagoen bezala egonda, azterketak beharrezkoak direla deritzot. Sistema behetik aldatuko balitz, azterketak soberan leudeke. Examinen eraketa ez da justua.



MYRIAM VILLASANTE
Euskara irakaslea, 32 urte

Ez dut iritzi garbirik; interesgarriak dira ikasle bati dagokion nota jakin ahal izateko. Dena den, azterketaren nota ez da bakarra, eguneroko jarduna gutzit garrantzitsua da.



IÑIGO BASTIDA
U.B.I.ko ikaslea, 18 urte

Azterketak egin behar dira baina beste modu batera. Orain egiten diren moduan eginda, azterketak nota bakarrik dira. Hiru hilabetetan ikasten den guztia ezin daiteke ordu batean baloratu.



MARIA JOSE GARMENDIA
Psikologa, 30 urte

Sistema osoa hasieratik eta oinarritik aldatuz gero, ez lirateke beharrezkoak. Baina gauzak dauden bezala egonda, ikasleen lana ebaluatzeko era egokia da.



VANESA ROZAS
3. B.B.B.ko ikaslea, 16 urte

Ez nago azterketen alde, baina agian irakasleentzat gure lana neurtzeko dagoen bide dakarra da. Hala ere, gure lana hobeto baloratzeke beste bideren bat aurkitzen ahalegindu beharko lukete.



POTXO ONAINDIA
Marrazketa irakaslea, 43 urte

Examinek jendea prestatzera eta ikastera behartzen dute, baina nire ustez klaseko lanen bidez emaitza berbera lor daiteke. Izan ere, zenbait klase eta gaitan ez dut azterketarik egiten.



Elgoibarko Lanbide Heziketarako Institutua

Agirretorre 2
Tel: 74 31 00 - 74 05 86.
Fax: 74 11 68



EUSKO JAURLARITZA



Tel: 74 03 45 San Bartolome 35

IRAKASKUNTZA
PUBLIKO BATEN ALDE

YUDEGO

DROGERIA
LURRINDEGIA

San Frantzisko 2 Tel: 740299.

Liburutegi berria

Abenduaren haseran zabaldu zituen atea liburutegiak, berriztatze lanak zirela eta, hiru hilabete t´erdiz itxita egon ondoren. Liburutegiari espazio handiagoa eman zaio eta beraz, jende gehiago hartzeko kapazitatea du. Berrikuntzen artean aipatu, ikasleek ixilean ikasteko leku berezia izango dutela. Bestetik, Liburutegiko fonotekak, Gabon kanten bilduma bat jarri du bezeroen erabilerarako. Liburutegiaren ordutegia: goizez, 9etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 8tara.

Euskaraz jolastu

Udal Euskara zerbitzuak, Foru Aldundiaren laguntzaz, zenbait ekintza antolatu ditu herriko haurren artean euskara bultzatzeko asmoz. Hilaren 28, 29 eta 30 eta urtarrilaren 4 eta 5a bitartean, sukaldaritza eta eskulan ikastaroak, mendira irtenaldiak eta abar luze bat egiteko aukera izango dute.



Altzola Dorretxea kulturaren euskarri

Altzola dorretxea kultur eztabaida eta beste-lako ekintza ugariren bilgune da. Ofizialki hilaren 11an inauguratu zuten arren, elgoibartarrok han eskeintzen dizkiguten zerbitzuez gozatzeko aukera dugu aspalditxotik. Beheko solairuko erakusketa aretotik herriko hainbat artistaren lanak pasa dira jadanik eta jakin ahal izan dugunez, 1993ko apirilera dago hartuta.

XV. mendeko dorretxe honek, gorabehera asko pasa behar izan dituen arren, sute bat tartean, inauguraketa egunean han bildu ziren agintariek zioten bezala, harro egoteko gauza da gaur arte kontserbatu izana. Ekintza ofizialean Foru Aldundiko Kultura diputatua den Maria Jesus Aranburuk horrelako dorretxe baten erre-kuperazioaz harro dagoela aitortu zuen.

Zortea gure artean

Egunkaria Tonbolak 100.000 pezetako saria banatu du Elgoibarren. Zorteduna Mirian Iriondo izan da eta demaseko sorpresa hartu zuen tonbolako boleto berdea zabaldu eta 100.000 pezetako ko saria tokatu zitzaionean. Hainbeste zero segidan ikusteak honelako zorion aurpegia utzi dio.



Gabonetako loteria

Pezetatan kopuru zehatzik kalkula ezina bada ere, "Gordo" izeneko sari ezaguna noiz tokatuko zaigun esperantzaz, normalean baino 25 aldiz diru gehiago gastatzen dugu Gabonetako loterian.

SALVADOR CELAYA ITURGINTZA

*BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK*

Errosario 22. Tel: 74 04 94.

IRIONDO



KIROLAK

Mendi-eskalada eta kirol guztietarako ekipamendua

San Frantzisko 37. Tel: 74 09 56

Izarren orde bonbilak

Pasa den ostiral arratsaldetik herriko kaleetan jarrita dauden Gabon apaingarriak piztuta ikusteko aukera dugu. Aurten, lira antzeko figura bat aukeratu du Udaletxeak herriko kaleak argitzeko. Apaingarriak urtero aldatzeko erabakia hartu zuen Udaletxeak, nolabaiteko berritasuna eman nahi zitzaiolako ikuskizunari. Instalazioa Udaletxeko elektrizista taldeak egiten du eta apaingarriak alokatu egiten dira urtero. Zazpi egun behar izaten dute instalazioa egiteko.

Musikeskolaren Kontzertua


Inazio Bereziartua Musika Eskolak atzo eman zuen irakasle eta ikasleen urteroko kontzertua. Aurtengo kontzertua Musikeskolak antolatzen duen boskarrarena da, eta ohi denez, akordeoi taldeak, haur abesbatzak eta korda taldeak launa obra jo zituzten. Euskal musikagile-

ek armonizatutako Gabonetako obrez gain, klasikoen obrak ere interpretatu zituzten. Bukaeran, Haritz Dantza taldeak Udal txistulariekin batera bost musikan interpretatu zituen Jose Inazio Sarasuaren zuzendaritzapean.

GUASSak ordutegi berria

Guass diskotekak Igandetako ordutegia aldatzea erabaki du. Hemendik aurrera "Discolight"aren ordutegi berria 4etatik 8etara izango da, eta gainera, 13 urtetik beherakoek sarterik ez dutenez, karneta eskatuko da.

Guass-ak antolatutako dituen ekintzen artean, herrialde exotiko baterako bidaia zozketatuko da Urtarrilaren 6an. Zozketan parte hartu nahi dutenek honako taberna hauetan lor ditzakete zozketa txartelak arra-tsaldeko 7etatik 8rak bitartean: Urkiola, Udaberri, Oraiko (goikoa eta behekoa), Pelouse, Malape, Lojantzi eta Lanbroa.



Eduardo Arrillagaren argazki honek, beste bost argazkirekin batera, Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Sustatu" lehiaketaren 2. saria jaso du. Argazkiok Abadiñoko "Atxarte" gutxituen erresidentzian atera ditu Eduardok. Duela sei hilabete hasi zen Abadiñoko erresidentziako gutxitu fisiko eta psikikoekin lanean eta oraindik hortan jarraitzeko asmoa duela azaldu digu. "Hasieran oso gogorra da, denetarik ikusten baituzu: akats fisiko izugarriak dituztenak, autistak, paraplejikoak, mongolikoak, ..."

Etorkizunerako proiektu ugari dauzka eskuartean argazkilari elgoibartarrak. Besteak beste, Guru-tze Gorriarekin, oraindik ziurtatu gabe, Somaliako egoerari buruzko erreportaia

Zorionak Eduardo!

JOYERIA ARAMBURU



GURE TAILERRAK



URTEMUGA



San Frantzisko 26
ELGOIBAR

PICTURAS

NORBERTO
ZABALA

Errosario 32 Tel: 74 08 45.

ELGOIBAR

**"Euskaldunok batzen
gaituena banatzen
gaituena baino
garrantzitsuagoa delako"**

Zorionak denoi !!

ELGOIBARKO iZARRA
Kultur Elkarte

"Kaskoa jantzi eta andamioetara igotzeko prest gaude"

Arantxa Narbarte, Paula Pelaz, Puri Dalmeida, Fatima Lopez eta Ana Montero nire alboan jertzaren dira eta grabadora ikustean urduritasunezko

begirada bat luzatzen didate. Elgoibarren sortu berri den KALAMUA izeneko garbiketa kooperatiba batetako hamalau partaideen ordezkari gisa etorri dira

-Kontaiguzue nondik etorri zitzaizuen kooperatiba hau sortzeko ideia. Langabezian zeundeten?

Beno, langabezian beza-la geunden. Gu Udaletxearen menpe dagoen "etxez-etxeke zerbitzurako" lanean ari ginen, baina legez kanpoko egoeran aurkitzen ginen, kontratu eta seguru sozialik gabe. Gure egoera normalizatu nahian Udaletxearekin bilertan hasi ginen, eta haiek kooperatiba sortzea proposatu ziguten..

-Laguntza ofizialik jaso duzue kooperatiba sortzeko?

Subentzioa eskatuta dago, emango digutelakoan gaude baina oraindik ez daki-gu zenbatekoa den.

-Lokala aipatu duzue, lokalik badaukazue ala?

Udaletxeak kooperatiba sortzeko esan zigunean, lokal bat denboraldi batez utziko zigula aipatu zuen lehenengo hilabeteetako gastuak, ura, kalefazioa, telefonoa eta guzti hori, gu martxan jarri arte beraien kontu geldituko zela gaineratuz. Geroago idatzi bat egin genuen lokala eskatuz eta une honetan



"Zerbitzu gehiago eskaini nahi genituzke, baina horretarako dirulaguntza behar dugu"

erantzunaren zain gaude.

-Sexua dela eta arazorik izan duzue kontratatzaileekin?

Normalean ez dugu arazorik izaten, hori bai, behin garbiketa zerbitzua egiten ari ginen enpresa batetako geroak, hiru pisutako kristalak kanpokaldetik garbitzeko emakumerik zintzilik ikusterik ez zuela nahi esan zigun eta mutil bat subkontratu behar izan genuen kristalak garbitzeko. Baina argi gera

dadila gu kaskoa jantzi eta andamioetara igotzeko prest gaudela, eta inongo beldurrik gabe.

-Ba al dago lan eskaerarik?

Krisia dela eta... une honetan ez. Gure lana herriko enpresetan eskaintzen aritu ginen hasiera batean eta orain berriz ere egin behar dugu. Etorkizunerako itxaropenez gaude gainera, Udaletxeari herrian garbiketa enpresa bat sortzea oso ongi iruditu zitzaioala gaineratu behar da, Horretarako

ahalik eta laguntza handiena behar dugu.

-Lan kontraturik?

Ez, autonomo errejimenean sarturik gaude, langileen erregimen orokorra pentsaziona delako gure lan egoerarako. Prezioak izugarri igo beharko genituzke gaur egun merkatuan dagoen ordu-prezioaren parean egoteko eta askotan azpitik ibil gaitezke.

-Ordutegi fijoerik baduzue?

Ez, hori oso erlatiboa da. Egunean zehar ordu desberdinetan egin dezakegu lan eta urtean zehar udan ere aritu izan gara lanean. Hori eskararen arabera da. Egunero hiru ordu t'erdiko lana egiten dugu batz bestea..

-Nola ikusten duzue etorkizuna, zer asmo duzue?

Etxez-etxeke zerbitzua egiteko prestatuak gaude batez ere: umezaintza, gai ez diren pertsonen bazkari zerbitzua, bai etxean bai komedorean, ihaultako haurrei laguntza ematea... Urteetan zehar ikastaroak egiten aritu gara baina zerbitzu hauek martxan jarri ahal izateko laguntza behar dugu.

Lorea Perez de Albeniz.

Juan Karlos Markos

"Musika beste esperientzia bat bezala hartu dut"

ZOKOAN rock taldeko abeslaria da. Euskaldunberria da. Hitzegiteaz gain kantatu ere euskeraz egitearen aldekoa dugu. Taldekide denetik **ZOKOAN** taldearen musikak

izan du eraginik kanpora begira. Kantuan hasi baino lehen urduri izaten dela aitortu digu. Gurekin umoretsu aritu da solasean.

Noiz eta nolatan sortu zen taldea?

ZOKOAN taldea orain dela bi urte sortu zen. Elgoibarren lehenago beste talde bat osatzen zuten, *Distrito 21* taldea, hain zuzen. Talde hori desagertu ondoren, per-sona bat edo bi geratu ziren eta poliki-poliki pertsona horien inguruan **ZOKOAN** taldea sortu zen. Orain dela urte bat, ni sartu nintzen abeslari bezala.

Zer dela eta sartu zinen?

Nik betidanik izan dut musika gustokua. Taldeko teknikuak ezagutzen ninduen eta horregatik besteei komentatu zien neri planteatzeko. Horrekin batera, berak ea kantatu nahi nuen esan zidan. Orduan, egun batetan lokalerara joan, probatu eta geratu egin nintzen.

Ordutik hona zertan eman du denbora taldeak?

Taldeak hasieran maketa bat grabatzeko asmoa zeukan baina artean musika nahiko pobrea zen. Poliki-poliki entsaiatzen jarraitu genuen eta aurtengo ekainean maketa grabatu dugu Lorentzo Records estudioan. Hamabi edo hamahiru kontzertu ere



Orain taldeak hamar kanta euskaraz eta bost erdaraz dauzka

eman ditugu. Lehenengoa Soralezeko Gaztetxean egin genuen martxoan, gero Elgoibarren hiru segidan, Ondarruko Gaztetxean, Leioan, Donostiako *Bukowski* tabernan...

Zer moduz moldatzen zara taula gainean kantuan?

Hasi baino lehen nahiko urduri egoten naiz. Gero, hasitakoan, galdu egiten dut lotsa nahiz eta jendeak pentsatu "tipo horrek ez dauka lotsarik".

Nola hartu duzu zuk musika kontu hau?

Beste esperientzia bat bezala. Nerretzat taldeak aurrera segituko du, ez dakit noiz arte. Beste maketa bat edo LP bat grabatzen baldin badugu ondo, eta zenbat eta esperientzia gehiago, hobeto. Egunen batetan bukatzen bada, bukatu da eta kitto. Bitartean ikasi, ondo pasatu eta jendea ezagutu.

Abestien hitzak zeuk egin al dituzu?

Batzuk bai, beste batzuk eginda zeuden. Sartu nintze-nean letra batzuk aldatu egin nituen, zentzu gutxi zutelako. Beste batzuk, berriak, nik egin ditut. Sartu nintzenean, gainera, letrak euskaraz egitea planteatu nuen, abesti bat bakarrik zegoelako euskaraz. Orain hamar abestiren letrak euskaraz dauzkagu eta bost edo erdaraz. Nik uste dut Euskal Herrian euskaraz hitzegin eta kantatu behar dugula.

Zaila izan al da lan hori?

Nik betidanik erdaraz pentsatu izan dut eta txikitan beti hizkuntza horretan aritu naiz. Baina ideia erdaraz izan arren, abestien letra euskaraz egiten hasten naiz. Gero AEK-ko irakasleen laguntza izan dut piska bat zuzentzeko. **Aurrera begira ze asmo duzue?**

Orain Iban Urizar gaztea sartu da gurekin abesti bate-tan tronpeta jotzeko. Mementuz abesti batetan bakarrik jotzen du baina seguraski egingo ditugu beste batzuk ere elkarrekin, ez dakit...

Jon Eugi



N O Z K i
DIETETIKA KONTROLA
Foruen Enparantza 5 Tel: 74 08 78



ELGOIBARKO BATXILERGO
INSTITUTUA
GABON ZORIONTSUAK DENOI
BETI EUSKARAREN ALDE



INTERIORES
CLARA ARRILLAGA
Dekorazaiile-Proiektatzailea
PROIEKTUAK-ERREFORMAK
-LOKAL KOMERTZIALAK
-ETXEBIZITZAK-ENPRESA
Tel: 74 40 55-74 40 19. Errosario 15



DECORACION
Ana
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK
Santa Ana 2
Tel: 74 35 09. ELGOIBAR



Jesus Fernandez
Malape tabernakoa

- Eguna ala gaua? Gaua.
- Kafea ala ebakia? Kafea.
- Kamarero lanaren alde txarrena? Zertxobait prostituta zarela.
- Trikitrixa ala tangoa? Tangoa.
- Bilbo ala Donostia? Bilborekiko malenkonia gehiago daukat Donostiarekiko baino.
- Amodioa oherakoan ala esnatzerakoan? Ez dut amodioan sinisten, baina, beno, antzerakoa baldin bada, nahiago dut esnatzerakoan sentitzea, eta sexua oherakoan.
- Azkenaldian, irakurri dituzun liburuetatik, zein gustokoena? Ferdinand Celine-ren "Viaje al fin de la noche".
- Eta filmea? "Ileapaintzailearen senarra".
- Kolore bat? Tonu edo ñabardura egokia duen edozein.
- Jaiotza ala Gabonetako zuhaitza? Zuhaitza, baina Gabonetakoa ez.
- Zeri diozu beldurra? Bilatzen ez den bakardadeari.
- Baserrian ala kalean bizi? Baserrian gustatuko litzaidake, baina beldur handia ematen dit.
- Konpondu ezin daitekeena? Beti ere "mamoiak" egotearena.
- Musikari dagokionez, elgoibartarron gustuak? Denetik dago, baina orokorrean, nolabaiteko gogortasuna dago nobedadearen aurrean. "Rock n' roll"aren kultura hedatuegi dago.
- Txikitan, masturbatzen al zinen? Ez dakit inoiz ume izateari utzi diodan, agian oraindik ume naiz, baina jarraitzen dut masturbatzen.
- Hurrengo bizitza batean emakume bazina, nolakoa izatea gustatuko litzaizuke? Nire traza edukiko lukeen emakumea.
- Erraza al da zurekin bizitzea? Nahiko konplikatu naizelakoan nago eta bakarrik bizi naiz.
- Gustora al zaude zeure azalean? Gehiegi errebelatzen naiz, baina modu autodestruktibo batean agian. Nahiko ezeroso sentitzen naizela uste dut.
- Antzerkia noizko? Betirako. Baina gauzak ez dira irteten nahi genukeen bezala. Urtarrilerako pentsatzen dut.

Miriam Aldazabal

TXURI BELTZ
Taberna · San Franzisko 38

UNZUETA Garraioak
· Dumper Mercedes 2635 Ak ibilgailuak.
· Gehiengo zama: 14 Tn.
· Harrobiko materiala zerrautsa, simaurra eta abar.
TEL: 74 30 37.

GABONETAKO BERTSO JAIALDIA

ELGOIBARREN

Gaijartzailea Laxaro Azkune

Bertsolariak:

Andoni Egaña
Jon Sarasua
Jokin Sorozabal
Sebastian Lizaso
A.M. Peñagarikano

ABENDUAK 26 Larumbata gaueko 10etan.


KIROLDEGIAN

ELGOIBARKO IZARRA. Kultur Elkartea.

ELGOIBARKO UDALA.



Euskadiko Sindikatua, Euskadi eta Euskararen Alde.



ERROSARIO KALEA 25. Tel: 74 42 78 - 74 42 79.

Aurtengo Nagusien Etxegiña Bertso Paper Lehiaketa elgoibartarrentzat bakarrik izan da. Hamalau lagunek parte hartu dute eta gaia "Telefono erotikoa" izan da. Hona hemen lehiaketan parte hartu dutenen izenak eta bi lehenengoen izen abizenak eta

Telefono erotikoa

Doinua: Proportzio bat (Ikus bertsoan II)

Sexu kontua ibili izan da
pekatu artean igeri
abstinentzia jolasa baino
jatorrago ageri.
Guzti hau zeinen kontua dugun
ez al da nabari?
Izan fededun! Zure arima
suartetik aska bedi!
Desio eta jolas gozoa
ez omen dira zilegi.


Geizki ikasiak berekin dakar
noski hainbat ondorio
ta zuzendu nahi izanez gero
nahiko lan oindio,
ez dizkigute sekula emango
nahi adina erremedio
norberak bere gorputz ta izatez
onena atera behar dio;
bien artean aitzakiak bai
baina ez sexu ez amodio.

Kalean oso hotzak ei gara
ez al da hau betikoa
azkarren batek kriston ideia
prest dauka txiringittoa.
Berotuko du ahots gozoez
gure lurralde artikoa
berotuko du txanpon pisutxuz
hutsik daukan poltxikoa;
ez du ematen izango denik
oso erromantikoa.

Denon ahotan dago oraintxe
krisi gogorraren gaia
heldu ei zaigu inoiz joan ez den
pobreziaren garaia,
sakela bete behar ta ezin
gero eta hutsago mahaia.
Ihesbideren bat behar eta
ahal baldin bada alai
aparatoaz egingo dugu
ametssetako andreagaia.

Krisia halere ez da bakarrik
ekonomiarena izan
irudimenez ikus daiteke
zeinen behartsu gabiltzan.
Ideiak antzu ta aparatoa
hauen pizgarri bailitzan,
ezin gozorik aurkitu gure
ekimen eta ekintzan
gero ta paper txikiagoa
daukagu geure bizitzan.

Emagalduta bezero artean
zurikeriarik ez da,
batak eskatu besteak tori
tartean hamaika pezta.
Halarik ere kalean bada
nahikoa mutil ta neska
hainbeste dagon lekuan gosez
hilko ote garen dut kezka
gogoa izanda gozatu ezin
malkoa dakar ganezka.



Nahiz eta gauza ugari etorri
niri oraintxe gogora
ez uste gero nabilenikan
kontu hauetan gustora.
Telefonoa gure artean
iritsi bada hain gora
erabileran agian zerbait
majikorik izango da
beraz, nik ere badaezpada ere
egin behar dut aproba.

Egunkarian neska gaiztoa bat
bere izena nonbait LIMBO.
Azpian dakar zenbakitar bat
markatu dut eta bingo !
Ez da hain txarra, baina arraultz honek
ez du ez gatz ez gorringo
nahiz eta bera izan pantera
ni berriz un chico lindo
euskeraz egin artean berriz
nik ez diot hotsegingo.

Asier Etxaniz
TXAPELDUNA

**IDARRAGA
KAFFEA**
Eguneroko
Xigordura.
San Frantzisko 17
Tel: 74 05 33.

MIMOX
San Frantzisko 19 Tel: 74 40 83

LORAK-DISKAK-ERREGALIAK
Zure Buru txarren soluzioa gara.
Zutaz arduratzen garelako,
etxez etxeko banaketa egiten dugu
(Igandea eta jai-egunetan ere bai).
ZORIONAK !

Telefono erotikoa

Doinua: "Juana Bixenta Olabe"

Ai erotika, ai erotika!
erotu al zaigu telefonika.
Propagandan horrenbeste diru:
bederatzi, zero eta hiru
da prefijoa,
gchiago esatera ez nihoa
faktura baita fijoja.

Bakarrik nago, hau da tristura!
zoritzarreko sortu mundura.
Bakardadeak nauka buruz gain
telefonoa hortxe daukat zain:
-kaixo, laztana!
polit, itsusi edo zerana,
eskean nator gaur zuregana.

-Eseri lasai, kontatu penak
askatuko bait dizkiat nik denak.
-Broma denik ez pentsatu, gero
hasi orduko jarri naiz bero.
-Ahots ezitia!
Ai, ez balitz horren garestia!
dardaraz daukat porputz gutzia.

-Aizan, katutxo, - Aizak Perrando
hi gabe ez niatxegok ni ondo.
- Kendu gona eta kendu kulero,
eskuarekin igurtzi gero
hankatartea
mundua bezain zahar den artea
zabaldtu dadin nire atea.

- Aizak Perrando,- Aizan katutxo
prakak zeuzkeat aukeran estutxo.
- Aska ezak, bada kreailera
barruko jauna dadin atera
oilar gorria
ez dakit nondik nork igorria
egingo niake ongi etorria.

Juana Bixenta, Joxe Bixente
bata bigun bestea tente,
eginagatik hainbat ahalegin
behar bestean luzatu ezin.
Pazientzia!
uste gabeko penitentzia
hauxe duk "mango a distantzia".

Gozatu nahi eta inolaz ezin
behar ditugu hamaika medezin:
betroi zaharraren antzera nago
hasi ez banintz nuke nahiago,
ez da ganora!
faktura doa lainotan gora;
berton, uztea hobe izango da.

Telefonotik plazere bila
gu bezala ez dakit nik zenbat mila:
"plazer baten mila dolore"
(ez al da hala, Jaun Etxepare?)
izan ohi dira
laburra baita horren dizdira,
bestela jarri guri begira.



Saiatu arren lorpen urria
hain da deuszesa gure neurria!
Aspertu naiz erretolikan
telefono guztiak utikan!
Ai erotika!
hobe ohe goxoko kilika
ezagunekin eta iputika.

Anjel Ugarteburu
2.SARIA



PARTEHARTZAILEAK:

Ander Gonzalez
Aitzol Arriola
Pake Garzia
Abel Irizar
Joseba Gorosabel
Jon Peli Uriguen
Imanol Larrañaga
Anjel Ugarteburu
Patxi Etxeberria
Hasier Etxaniz
Josu Arriola
German Meabebasterretxea
Izaskun Elizburu
Alberto Agirreazaldegi

**KIROLZALE,
ADI URAREKIN!**

Mugitzean, korrika edo beste aktibitate fisiko bat egiten hasten garenean, gorputzaren, tenperatura eta ur bolumena aldatu egiten dira.

Aktibitate fisikoaren intentsitatearen ondorioz galtzen den energiarekin batera gorputzaren tenperatura gorantz doa, larruazalarena batez ere, eta tenperatura hori gehiegi igo ez dadin eta orekan mantendu ahal izateko izerditan hasten gara, gorputzak ura galduz.

Ariketa fisikoa luzatu ezker, ura odoletik larruazalera irtengo da. Gorputzak izerdi-ur asko galtzen duenean, odolak ere ura galtzen du nekea sortaraziz. Ur gehiegi galtzen badugu nekez gain desidratatu egin gaitezke.

Jendeak, arropa asko erabiliz, izerdituz, gehiago argaltzen dela uste du eta guztiz ekibokaturik daude. Jarrera honekin izerdiak bete behar duen funtzioa, tenperatura jeistearena alegia, oztopatu egiten dugu, desidratazioa probokatur. Argaltzeko era bakarra elikaduraren bidez lortzen dugun energia ariketa fisikoaren ondorioz erretzea da.

Aholkuak:

- ▶1-Ahalik eta arropa gutxien erabili izerdiaren transpirazioa errazteko.
- ▶2-Gorputz-azala haizearekin kontaktuan jartzeak izerdiaren funtzioa betetzen laguntzen du.
- ▶3-Denbora luzez ariketa fisikoan aritzen bagara noizbehinka ura edan.
- ▶4-Kirol bat praktikatu eta gero, hurrengo egunetan ura edanaz gorputzaren errekupeazioari lagunduko diogu.

Ramon Mujika Arkarazo

Hezkuntza Fisikoan Lizentziatua

Udal Kirol Teknikaria.

**Pako Iriondo:
"Himalaya igotzeko
adin egokiena 40-50
urte bitartekoa da".**

-Hirugarren aldia da Euskal Mendizaleen Federazioko presidente aukeratzen zaituztena...

Bai, kargu honetan askotan egon naiz eta nahiko ondo ezagutzen dut. Kargu honek ezagutza handia eskatzen du, eta noski, barrenetik sentitzen ez baduzu.

-Datorren urterako espediziorik egitea pentsatu al du Euskal Federazioak?

Normalean Federazioak ez du espediziorik antolatzen. Talde edo pertsona batzuk izaten dira espedizioak prestatzen dituztenak, eta Federazioa agirien tramitazio eta gestioaz arduratzen da. Aurten hamasei espedizio antolatzen lagundu dugu. Horiatariko bat, Iñurrategi anaia gipuzkoarra.

-Elgoibarko zenbait gaztek Nanga Parbatera igotzeko asmoa dute. Zer nolako laguntza eman die Federazioak?

Gaur egun espedizioen mundua asko garestitu da eta gero eta jende gehiago dabil horretan. Hori dela eta, Nanga Parbatan zer egiten duten ikusi ondoren erabakiko da diru laguntza eman ala ez.

-Mendirako zaletasun handiagoa



nabaritzen da gazteen artean, ez al da hala?

Gazteak oso ondo prestatuak daude. Dena den, Himalayan dabilen jendea ez da eskalatzailea izan behar, zortzi milako bat igotzeko indarra, prestakuntza eta erresistentzia behar da. Himalayara igotzeko Iñurrategitarak adibidez, gaztetxoegiak dira; zenbat eta gazteagoa izan ondorioak latzagoak izaten baitira. Himalayan esperientziadun mendizaleak behar dira, eta adin hoberena 40-50 urte ingurukoa da. Mendiko marka gehienak adin horrekin lortu dira.

-Mendizale bezala, zer iritzi duzu Euskal Herriko mendien egoeraz?

Aralar, Gorbea eta Urbiatik tonaka zabor erretiratzen da urtero. Gure asmoa, ordea, hori ekiditea da eta gure lana gizarteak horretaz kontzientzia hartzea. Mendizalea ez den "mendi-zale" asko dago eta hoiiek uzten duten zaborra norbaitek jaso behar du.

**ASESORIA
GOIR**

AHOLKULARITZA

Zorionak eta urte berri on!

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29 Elgoibar

Kuadrilen arteko II Gabon Txapelketa

300 lagunetik gora aurtengo edizioan

Hilaren 28tik 31ra eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, herriko kuadrilek beren indarrak neurtzeko aukera izango dute kirol iharduera ezberdinetan. Kuadrilen arteko II. Gabon Txapelketan parte hartu ahal izateko gutxienez 10 lagunetako taldeak osatu behar dira eta 2.000 pezetatako ordaina ezarri.

Partaideek 5 kirol ihar-deratan aritu beharko dute derrigorrez: saskibaloia, futbitoia, pala, igeriketa eta krossean, alegia. Tenisa, berriz, aukerakoa izango da.

Partehartze handia

Aurtengo txapelketa, iazkoak izan zuen arrakasta ikusita, Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen duen bigarrena da. Aurten 300 bat kirolzale arituko dira lehia horretan. Aipatu partehartzaile gehie-



nak gizonetzkoak izan arren, emakumenkoren batzu ere animatu dira eta gainera gizonetzkoek aurre egiteko asmo sendoaz.

Froga guztiak arratsaldean izango dira. Berrikuntzak ere badira aurtengo edizioan. Igeriketa eta krossean kide bakar batek edo bik parte hartu beharrean, aurten krossean zein igeriketan, 5 per-

tsona arituko dira lehian.

Krossean burutu beharreko ibilbidea honako hau izango da: Plaza Haundian hasita, talde bakoitzak, 5 kidez osatuta, San Bartolome kalea, Urruzuno, Lorito, San Franzisko eta Errosario kaleak zeharkatuko ditu, berriro ere Plaza Haundian bukatzeko. Kide bakoitzak 50 metrotako distantzia beteko du, errele-

boak eginez, ibilbide osoa bete arte.

Igeriketari dagokionez, taldeek, bostna kidez osatuak, 250 metrotako luzera burutuko dute. Froga hau ere erreleboen bidez egingo da.

Froga guztiak eliminatarioak izango dira, azkenean 4 talde geldituko direlarik.

Froga ezberdinetan talde bakoitzak lortutako puntuaketa batu ondoren, puntu gehien bereganatzen dituenak izango da irabazle. Txapelketaren talde irabazleak afari bat eta saria jasoko du, eta lehiaketa bakoitzeko irabazleak ere izango du saria.

Abenduaren 31ean futbito eta saskibaloia finalen ondoren, beste sari batzu zozketatuko dira partehartzaile guztien artean, tartean mendiko bizikleta bat.

Elgoibarko EAJ-PNVk

*JAI ZORIONTSUAK opa dizkizue
Herritar Guztioi.
Urte Zaharra Ondo bukatu
eta
Berria Hobeto hasi.*



Lehen zenbakitik aurrera atal honetan Elgoibarko jan eta edaneko elkarte guztiak ezagutzeko aukera izango dugu. Bakoitzean fitxa, bazkideei buruzko xehetasunak, urtean zehar egiten dutenaren informazio, eta abarren berri emango dugu. Bukatzeko elkarte bakoitzari errezeta bat ere eskatuko diogu. Ale berezi honetan, Gabonak direla eta Imanol Urain sukaldari elgoibartarrari Gabon Zahar afarirako errezeta apropos bat eskatu diogu.



ALKATXOFAK SALTSA BERDEAN ALMEJEKIN

OSAGAIK:

- (lau lagunentzat)
- 16 alkatxofa
- txikitutako tipula erdi.
- berakatz bat
- irin pixka bat
- ur pixka bat
- espinaka txorta bat
- olioa
- 100 gr. ilar
- almeja kilo erdi

NOLA EGIN:

- 1-Alkatxofak garbitu eta egosi limoi tanta batzu uretara botaz.
- 2-Lurrezko kazuela batean kipula eta berakatz oliotan potxatzen jarri.
- 3-Tipula biguntzen denean, almejak bertara bota, eta buelta batzu eman almejak irekitzen joan daitezten. Irin pixka bat eta alkatxofen ura gehitu. Ondoren irakin dezan utzi.
- 4-Alkatxofak eta espinakak (txiki-txiki) bota eta berriro irakin. Mahaira atera baino ez da falta. Oso bero jan behar da!

TXITXARROA BERDUREKIN OLIOZPINETAN

OSAGAIK:

- (lau lagunentzat)
- 300 gr.tako 4 txitxarro
- tipula bat
- piper berde natural bat
- piper gorri natural bat
- olioa
- ozpina
- gatza

NOLA EGIN:

- 1-Txitxarroekin tajadak egin.
- 2-Piperrak eta tipula potxatzen jarri, juliana erara.
- 3-Labeko bandeja batean, berdurak jarri eta hauen gainean txitxarro tajadak. Gatza eman eta olio pixka bat bota ondoren labean sartu su gogorrean(250º)
- 4-Txitxarroak eginda daudenean, plateretara atera eta ozpina bota.

Oliozpina:

Zartagin batean olio, "cayena" pipermina eta berakatz xehetua jarri eta belztu aurretik sutatik kendu. Ozpina lehenago bota behar da, zartaginean besteekin jarriz gero erre egiten bait da.



GAZTAIN FLANA

OSAGAIK:

- 6 arraultz
- litro laurden esne
- 150 gr. azukre
- 250 gr. gaztaina

Karameloa egiteko:

- 200 gr azukre
- Ura


NOLA EGIN:

- 1-Gaztainak zuritu eta egosi.
- 2-Esnea egosi.
- 3-Arraultzak, azukrea eta esnea nahastu.
- 4-Gaztainak xehetu eta maribañutan labean sartu ordu erdiz.

ELKARTASUNA, BERDINTASUNA,
 PAKEA, EUSKARA,
 AUTODETERMINAZIOA,
 hau da, Abertzaletasun aurrerakoia-
 ren inguruan indarrak batzen hasi garen
EUSKO ALKARTASUNA eta
EUSKAL EZKERRA
Koalizioaren izenean.



*Egu Berri On eta Urte Berri
 Zoriontsua izan dezazuela
 Elgoibartar guztiok.*





Patxi Cobo: Argazkia bizitzaren islada gisa

Patxi Cobo Ortuellarraren argazkietan paisaia industrialak eta makinak agertzen dira beti. Gai berbera tratatzen du bere argazkietan: gizakiaren eragina paisaiaren baitan. "Mota honetako paisaiekin obsesionatua nago", eta berak azadu duenez, "ez da harritzekoa Ortuella bezalako herri batean jaio ezker".

Patxi Coboren 36 argazki ikusgai daude hilaren 31 arte Kultur Etxeko erakustaretoan. Ortuellarrak zuri-beltza erabiltzen du beti, "nik adierazi nahi dudana hobeto erreflejatzen baitu". Gizakiaren suntsipena da bere argazkien sujetu. Kontzientzia ekologiko sendoa erakusten dute bere argazkiek, denuntzia asmorik ez eduki arren.

Jostailuak bai, baina nolakoak?

Jostailua umearen heziketan funtsezkoa da. Inork ez du nahi bere semea edo alaba sexista edo gerrazalea izatea. Horregatik, gurasoek oso kontutan izan beharko dute gabonetako oparia erosterakoan zein aukeraketa egiten duten.

Zalantzak batzutan, buruhaustek gehienetan, guzti hoiek konpontzeko edo arintzeko besterik ez bada ere, drogo-menpekotasunen prebentziarako elkarteak, Kultur Zerbitzua eta OMIC-en laguntzaz jostailuei buruzko kanpaina plazaratu du Gabonei begira.

Jostailuei buruzko informazioa ez da inon faltako. Gai horren inguruan hainbat arau eta gomendio ematen dituzten egutegi, trip-tiko eta dekalogoak banatu dira etxe guztietan. Gaian espezializatutako pedagogo batek gurasoei zuzendutako hitzaldiak eman ditu Gabonak aurreko astean eta orain kanpaina-


ren azken partea burutzea besterik ez da falta. HODEI errezi-klajerako tailerrak jostailu zaharrak edo modatik pasatuta daudelako bazterten direnak etxerik etxe bildu eta itxura berria eman ondoren, beste batzuk baino behar handioagoa duten umeen artean banatuko ditu.

Halaber, gurasoek bere seme-alabentzat jostailu egokia zein den ez badakite Kultur etxean antolatu den jostailu erakusketara jo dezakete. Bertan edozein zalantza edo informazioa eskuratzeko pedagogo

baten laguntza jasoko dute.

Helburua, jostailuek kritika pedagogikoa izatea da.

Beraz, zure seme-alabari erosi-ko diozun jostailuari buruzko informazioa nahi baduzu, badakizu non daukazu aholkua.



CARROCERIAS
STRADA, S.A.L.

AUTOMOBILEN KONPONKETA
TXAPA-MEKANIKA-ELEKTRIZITATEA
PINTURA-ERROTULAZIOA

Otaola Erorbidea 22
Tel: (943) 11 70 26
20600 EIBAR

Autonomia Kalea 12
Tel: (943) 74 07 12-16
20870 ELGOIBAR

●elektrizitatea
AZPELETA

San Frantzisko 51. Behea Tel: 74 12 38

"Nere estiloa guztiz *luzianesco*-a da."

Holliwood klasikoko aktore itxura eduki arren, berehala ohar daiteke gizon apala dela eta ez oso hizlaria, gainera. Carmen du emazte eta lagun, eta pintoreak aitortzen duenez, bere *public relations*-a ere bada.

Bezeroez arduratzen da emaztea, eta noizbehin-ka kuadroren bat ere saltzen diola esaten digu irrifarre gaiztoaz. "Krisia dela eta, oraingoak ez dira garairik onenak, baina arteari esker bizi daiteke. Profesionala denak bezero batzuk ditu, eta bidea ere egina du, eta, horrela, nor bere lanak saltzen joan daiteke".

Umetatik datorkio pintatzeko zaletasuna eta eskola lagunen aurpegi karikaturrak marrazten zituen, Elgoibarko Arte eta Lanbide Eskolan hasi zen arte. "Orduan Bernardo Ezenarro zegoen maisu. Pertsona eta artista handia zen hura ere, eta beste elgoibartar askoren artean ni

ere han nenbilen marrazketa artistikoa egiten".

Luzianoren kuadroak zertzelada espresionistaz erakitako konposizioak dira. "Nire estiloa guztiz *luzianesco* da. Ez dut inoren, Picaso edo beste edonoren eraginik". Bere ordu libreetan, etxean, estilo guztiz ezberdina lantzen du. "Nire etxean, neuk egindako pintura abstraktuak ditut; asko lasaitzen nau kuadro abstraktuak pintatzeak".

Orain, neguan, Madrilenduen galerian pintatzen jarraitzeko asmoa duela dio Luzianok. "Datorren denboraldian, nire kuadroen gaia pintorea bera izango da, pintorea estudioan bere lanari begira".

El Libretón
BBV



ORAIKO
LANBROA

ZORIONAK

elgoiBARREN astekariak eta EROSKI

OTAR ZORAGARRI BAT

irabazteko aukera ematen dizu.

Zer egin behar den? Azpian dauzkazun galderei zuzen erantzun eta urtarrilaren 6a baino lehen bidali astekariaren behin behineko helbidera:

elgoiBARREN herri astekaria

Ubitarte 4 behea

20.870 Elgoibar.

Galdera guztiak asmatzen dituzuenon artean, zozketa egingo dugu eta irabazlearen izena urtarrilaren 15ean, lehenengo zenbakian azalduko da.



1.- Zer da elgoiBARREN?

- Egunkarietako berriematek ateratzen duten gehigarri bat.
- Elgoibartarrok elgoibartarrantzat egindako herri astekaria.
- Maastricheko itunari buruzko aldizkari informatiboa.

2.- Nork argitaratzen du elgoiBARREN?

- Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak.
- Beste egitekorik ez duen lagun talde batek.
- Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek.

3.- Nola finantziatzen da elgoiBARREN?

- Harpidedunen eta Elgoibarko Udalaren dirulaguntzaz.
- Elgoibarko Udalari eta publizitatea egiten duten guztiei esker.
- Ruiz Mateos eta Jesus Gilen txekeei esker.

4.- Zenbatero plazaratuko da elgoiBARREN astekaria?

- Astero astero.
- Egunero eta goizean goiz.
- Zuzendariek beste zereginik ez dutenean.

5.- Zer egin behar da elgoiBARREN etxean jasotzeko?

- Hilero 5.000 pezeta ordaindu.
- Harpidedun fitxa bete eta aldizkariaren egoitzara bidali.
- Zuzendariei afari bat ordaindu.

Izen-abizenak:.....

Telefonoa:.....

Atal honen nahia merkatu txiki bat antolatzea da. (Plaza txikikoaren parekoa). Inork zerbait saldu, erregalatu, erosi, eskaini, eskatu, kontatuak egin... hori dena eta gehiago egiteko aukera izango du. Eta gainera, batere pagatu gabe.

Etxebizitzak

Lana

Salerosketak

kontaktuak

Zure

iragarkien

zain

gaude

Orrialde honetako iragarkiak dohain dira.
Testua idatzi eta bidali elgoi**BARRE**Nera.

TESTUA.....
.....
.....

Ubitarte 4 behea, 20870 Elgoibar tel: 74 1626



TELEFAX PUBLIKOA
FOTOKOPIAK
ESKOLARAKO MATERIALEA

PAPELERIA
GOXDEN

Pablo Irureta

San Frantzisko 52. Tel: 74 02 40

**SEGUROS
BILBAO**

Miguel Angel Canales

San Frantzisko, 42 Tel. 742864

24 osteguna

- Goizeko 11etan Maalako par-
ketik hasita, **Olentzeroren
Kalejira.**



- Arratsaldeko 3etan Gestorek
antolatutako **Olentzeroa.**

- **Zinea:** "Un lugar llamado
paraiso". Arratsaldeko
6,30etan.

25 ostirala

- Eguerdiko 12,30etan San
Bartolome elizan **meza abes-
tua.**

- **Zinea:** "Un lugar llamado
paraiso" arratsaldeko 7,30etan.

26 larunbata

- Egun osoan zehar **Gabon
Zahar Feria.**



Gaueko 10etan **bertso jaialdia**
kiroldegian. Bertsolariak: Sara-
sua, Sorozabal, Egaña, Peñaga-
rikano eta Lizaso. Gai jartzaile
Laxaro Azkune.

- **Zinea:** "El cortador de ces-
ped" 7,30etan.

27 igandea

- **Zinea:** "Aquel pais descono-
cido" 4,30etan.

- **Zinea:** "El cortador de ces-
ped" 7,30etan.

28 astelehena

- **Antzerkia** Maskarada antzer-
ki taldearen "Logalea
zeukan ekilibristaren
kasua". Herriko Antzo-
kian arratsaldeko
6etan. (Guz-
tientzat).



- Gaur hasita
hilaren 31 arte
KOKOE elkarteak
antolatutako **komiki ikastaroa**
Santa Klarako eskolaurrean.
Ordutegia honakoa izango da:
10,30etatik 12,30etara.

- Gaurtik 31 arte **Kuadrilen
arteko II. Gabon Txapelketa.**
Ekitaldiak arratsaldean izango
dira.

- **Zinea:** "El cortador de ces-
ped" 7,30etan.

29 asteartea

- **Antzerkia:** "Kiska" taldearen
"Bikote bihurria". (Haurren-
tzat).

30 asteazkena

- **Antzerkia** "Fregols" taldea-
ren "Nondik?" antzezlan-
a, arratsaldeko 6etan.



GENERALI

Aseguru Etxea
Astor Euzapirre Oudarra
200105 Aseguru Agentzia

*Lasai bizi nahi duzula!
Utzi gure esku!*

Era guztietako aseguruak ditugu:

- KOMERTZIOAK
- ETXEBIZITZAK
- ISTRIPUAK
- BIZITZA ASEGURUAK
- AUTOMOBILAK
- ARRISKUAK (denetarik).

Santa Ana 20. Tel: 74 41 01. 20870 ELGOIBAR

31 osteguna

- Zinea: "Morir todavía" arratsaldeko 6,30etan.

1993

URTE BERRI ON!

1 ostirala

-Zinea: "Morir todavía" arratsaldeko 7,30etan.

2 larunbata

-Futbol Sala: arratsaldeko 6etan eta 7etan Futbol Salako Gabon Txapelketa Olaizaga kiroldegian.

3 igandea


- Gaurtik hasita lurki tailerrak antolatuta **Larru eta Buztingintza erakusketa**. Kultur Etxean. Orduategia: goizez 12etatik 2etara, arratsaldeaz 7etatik 9etara.

4 astelehena

- Antzerkia: "Cobaya" taldeak "Triky Traka" antzezlanaren eman-go du arratsaldeko 6etan.

5 asteartea

- Arratsaldeko 6etan Foruen Plazan **Erregeen etorrera**.



6 asteazkena

- **Kontzertua**: Eguerdiko 12,30etan Musika Bandaren kontzertua Herriko Antzokian.

9 larunbata



- Kirol Zerbitzua eta Morkaiko elkartearen eskutik **"Deba Beheko I. Eskalada Txapelketa"**. Polikiroldegian egun osoan zehar.

14 osteguna

- Elgoibarko Izarrak antolatuta idaz lehiaketaren sari **banaketa** arratsaldeko 7etan Herriko Antzokian. Bertan Inurrategi anaiek **Everest** mendia igo zuteneko **diapositibak** aurkeztuko dituzte.

15 ostirala

- **Pilota**: Ikastolako frontoian III San Anton Txapelketaren esku pilota finala.

- **Antzerkia** arratsaldeko 7,30etan Herriko Antzokian.

REZOLA, S.A. GASOLINDEGIA

BERUNIK GABEKO GASOLINA- MICHELIN AGENTZIA- GURPIL NEURKETA- PRESIOZ-KO GARBIKETA- GARBIKETA AUTOMATIKOA- ASPIRAGAILUA.

Deba Kalea 20-5 Posta kutxa.
Tel: 74 00 17- 7402 41.

ELGOIBAR

Kafetegia

KAIA



San Frantzisko 50



DEBA
GARAIA

AGENCIA INMOBILIARIA Y FINANCIERA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

ESKAINTZAK

- 5000,000 tik gorako etxebizitzak
- Fiskal Finantza eta tasazio aholkularitza
- Pisu, garaje, lokal eta abarren salerosketaren gestioa
- Zure etxebizitza hemen aurkituko duzu
- Gure bitartekaritza ezinbestekoa da guztiontzat

Iturrioz 23behea.
20500 ARRASATE
Tel: 77 13 02.
Fax: 77 14 27

Telesforo Aranzadi 2
20570 BERGARA
Tel: 76 21 80.
Fax: 76 06 37.

Errosario 34 -1 Ezker,
20870 ELGOIBAR
Tel: 74 42 83.
Fax: 74 42 53.



GUASS

dantzalekua

-EGUBERRI ON! goizeko ordubatean zuen zain gaituzue. **Sorpresa** ere izango da!

-Gabon Zaharrear, Urte bukaerako demaseko **Kotilloia**. Sorpresa eta guzti!

*Elgoibarko Udalak
Jai Zoriontsuak
opa dizkizue herritar guztioi.*



*Urte Zaharra ondo
bukatu
eta Berria hobeto hasi.*



ELGOIBARKO UDALA